

hiruka

200. zenbakia
2023ko azaroa



GREBA FEMINISTA OROKORRA

Zaintzeko eta zainduak izateko

AZAROA > ABENDUA

DANTZA



SHINE

LaSala

AZAROAK 12 IGANDEA

19:00/10 €

HAURRAK



LOTI EDERRA

Glu Glu Produzioak

AZAROAK 19 IGANDEA

18:00 / 6 € / 3>12 urte

MUSIKA



SU TA GAR

Alarma

ABENDUAK 2 LARUNBATA

22:00 / 18 € (azaroaren 6tik salgai)

DANTZA



HITAZ ORHOIT

Kresala Dantza Taldea

ABENDUAK 3 IGANDEA

19:00/10€ (azaroaren 6tik salgai)

Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Erandioko sumendiaren historia
- 10 Herriz herri
- 20 Hirudika: «Mareen arteko bizitza» erakusketa
- 24 Berbetan: Rojin Özlem Tanrikulu, Kurdistaneko Kongresu Nazionala
- 28 Agenda
- 30 Lehen/orain eta Uribitakora
- 31 Musikhariak: Bayou La Batre
- 32 TopoBarrika, tokiko toponimiaren azterlana
- 33 Igone Arteagabeitia, Uribe Kostako emakumeen abesbatzaz
- 34 Iritziak
- 35 Usategi
- 36 Kirolak
- 37 Algorta Bote Luzea taldea, Euskal Herriko txapelduna
- 38 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 40 Faceguk
- 42 Aitormenak: Iholdi Beristain Martinez
- 43 Zozketak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Nahia Martinez Gondra, Iker Rincon Moreno, Aroa Sotelo Velasco, Iker Torre Navarro eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sopolako Sare Feminista, Algortako Mugimendu Feminista, Joanes Atxa, Asier Barruetabeña Rivallo, Aritzta Bergara, Iraide Juaristi, Nahia Fernandez eta Joseba Santxo

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Greba feminista orokorra

ALGORTAKO MUGIMENDU FEMINISTA



Zaintza eskubide kolektiboaren alde, azaroaren 30ean greba orokor feministara deituta gaude guztiok. Euskal Herriko beste hainbat lekutan bezala, Uribe Kostan ere herri eta auzo asanbladak antolatzen hasi gara eta, greba egun bat prestatzeaz haratago, horiek aukera ematen digute, berriz ere, zaintzaren beharraren gogoeta erdigunean jartzeko.

Guztiok beharko dugu, une batean edo bestean, zainduak izan, eta horretaz baliatu da sistema neoliberal patriarkala zaintza horiek merkantzia bihurtzeko, askotan langile zaugarrien bizkarrean zamatzuz, gutxi batzuek etekin ekonomikoak izan ditzaten. Logika horri berari erantzuten dio zerbitzu publikoen pribatizazioak herritarren beharrei baino gehiago, horrek kalitatea murriztea ere ekarri.

Horregatik guztiagatik, azaroaren 30ean, den-denok gelditu behar dugu, eskola, enpresa, osasun zentro, zahar-egoitza, ostalaritza, udal-zerbitzu, lantegi, garraio edota unibertsitateetan... Zaintza behar dutenengan eta zaintzen gaituztenengan arreta berezia jarritz, kalean zaintza sistema publiko komunitarioa aldarrikatuko dugu, zaintzaileen bizitza ere erdigunean jartzen duena; haientzako eta langile guztiarentzako bizitza duina izateko beharrezko lan-baldintzak exijituko ditugu.

Zaindu maite duzun hori

SOPELAKO SARE FEMINISTA



Zaintzaren zirkuitua askotarikoa da, konplexua sarri, eta baita prekarioa ere. Zaintza duintasunez jantzi beharra dago, zaintzaileen estereotipoa hautsi eta jendartearen erantzukizun kolektiboa ere badela sinistu behar dugu. Sinistu, onartu eta gauzatu, denok baitugu zer egina eta zer hausnartua afera honetan.

Zaintzak bi noranzko eduki behar ditu: batzuetan, guk zainduko dugu hura; askotan, hark zainduko gaitu gu. Hartara, zaintzak ez luke arazo izan behar, buruhauste; bizitzaren baitan dagoen gertakaria da, ezin saihestu daitekeena. Zaintza, beraz, ezin izan daiteke pribilegio izan, eskubide baizik.

Azaroaren 30ean denon bizitzak erdigunean jarriko ditugu, eta planto egingo dugu: zaintzako sistema publiko-komunitario feminista baterantz urrats berria emango dugu, azken urteotan abiatutako joerak ez baitu etenik, geldiezina da. Pribatizazioaren aurrean zaintzaren kolektibizatzea proposatzen dugu, hura profesionalizatu beharra dago-eta. Hala, zaintzen sektoreko lan-baldintzak ikuskatu behar dira, eta mendekotasun-legea moldatu behar da. Zaintza eredu emantzipatzailea behar dugu, familia nuklearrak harago doana, gizon zein emakumeen inplikazioa duena.

Puntua eta kontrapuntua **Azaroaren 30eko greba feminista orokorra**

Noiz arte?



*Zortzi euro orduko
norbait zaintzearren,
amen karga mentalak
zein karga dakarren...*

*Ustez garai berriak
omen diren arren
mila adibide daude
txarretan txarren,
...bizi duenak daki
zeinen gogorra den.*

**ARRATE
ILLARO
ETXEBARRIA**
Getxo

*Zaintzan zein garbiketan
eraso ta atake,
emakumeak ez du
lan munduan bake.*

*Gogorra, latza, fuertea
egoera da Arrate.
Oihukatuko dugu
kalean jo ta ke;
berdiñak baina ezberdin
ta horrela, noiz arte?*

**GALDER
BILBAO
MARTINEZ TXAPI**
Udondo



Amaia Martinez Aros Areetako gasoliozko batelaren gidaria

«Batelaren mundua soziala da oso, gizartearen baremo bat da»



Areeta eta Portugalete lotzen dituen gasoliozko batelaren gidarietako bat da Amaia Martinez Aros; 300 urteko ogibidea izan arren, inoiz baino biziago dagola dio.

TESTUA: NAHIA MARTINEZ GONDRA • ARGAZKIA: AROA SOTELO VELASCO ▶

Egunero, minutu bat inguruko iraupena duen joan-etorri berbera egiten du Amaia Martinez Aros gidariak. Hala ere, ez zaio bidaia aspergarri egiten: «Bezeroakaz ditudan elkarrizketa laburrek eguna eramangarriagoa egiten didate», aitortzen du.

Areetako gasoliozko batelaren edo «gasolinoaren» gidaria izan baino lehen, Bilboko ibai-garbitaketako zerbitzuan lan egin zuen. «Katamaran txiki batean Bilboko ibaiko zaborra biltzen nuen», dio. Aitzitik, aurtengo urtarrilean, gasolinoan lan egiteko deitu, eta eskaintza onartu zuen.

Harridura eta poza sumatu zuen bezeroen artean emakume bat ikusi zutenean ontzia gidatzen: «*Bazen garaia!*, esan zidaten». Hala, nahiz eta hasieran lana zaila egin

zitzean, gaur egun gustura eta konfiantzaz aritzen dela baieztatzen du: «Hasieran urduri jartzen nintzen, jendea niri begira zegoela sentitzen nuelako, eta oso azkar sartzen nintzen kaira».

Denborak aurrera egin ahala, esperientzia hartu du, eta ohiko bezeroak ezagutzen hasi da: «Badakizu nor den serioa, nor agurtzen duen beti, nor dagoen triste... Batelaren mundua soziala da oso, gizartearen baremo bat da».

Hala, bere lanean gehien gustuko duen gauza jendearekiko hurbiltasuna da. Bizkaia Zubiagaz alderatuta, batelak «gizatasuna» sustatzen duela uste du Martinezek: «Zubia ireki eta ixten den makina bat da, eta berdin zaio lanera berandu iristen zaren ala ez. Gaur egun, oso aseptikoa eta teknologikoa da dena».

Era berean, uste du bere bidaiariek kontzientzia asko dutela gasoliozko txalupa hautatzeko momentuan: «Kontsumitzaile gisa aukeratu dezakezu txanpona non sartzen duzun, batelean edo zubian. Azkenean, 300 urteko antzinatea duen garraioa da gasolino, eta ez genuke hori galtzen utzi behar. Gure tradizioaren parte da». ◀

Erandioko sumendiaren aztarnen bila



Astrabudua auzo erandioztarreko Axpuru mendiak Uribe Kostaren eta Bizkaiko golkoaren sorreraren aztarna geologikoak gordetzen ditu. Oharkabean pasatu daitezkeen arren, Deabruaren haitzak izena duen gune horretako arroka eta harkaitz horiek itsasondoko sumendi baten aztarnak dira, eta gure historia geologikoa azaltzeko balio dute.

TESTUAK ETA ARGAZKIAK: **ANDER ZARRAGA** ▶

Duela 100 milioi urte inguru, Kre-tazeoan, itsas-azpiko sumendi bat azaleratu zen gurean. Gaur egun, fenomeno geologiko horretako ebidentziak begi bistakoak dira hainbat gunetan, baina bereziki Astrabudua ondoan dagoen Axpuru mendian daude arrastorik ikusgarrienak.

Ainhoa Alonso EHuko Petrologia eta Geokimika irakasleak azaldu du mugimendu tektonikoen eraginez, Iberiako eta Europako plakak banatu zirenean, gurean sortu zen bulkanismoaren hondakinak direla Axpuru mendikoak. «Arrakala ez zen gurera arte heldu, baina lurrazala asko mehetu zenez, mantuaren gaineko presioa gutxitu eta mantuko arroka urtzen hasi ziren, magma basaltikoak sortuz. Horiek dentsitate txikiagoa dutenez, gorantz joateko joera dute, eta lurrazaleko haustura eta arrakalatetik ateratzen dira, gure kasuan, itsas-hondoko bolkanismoa eraginez». Erandioko sumendian ez zen kono bereizgarriarik sortu, magma itsasondoa zeuden pitzadura horietatik ateratu zen eta orduko azaleratzeak oraindino ikusgai daude.

Alonsok azaldu du horrelako azaleratze bolkanikoak ugariagoak direla Gipuzkoan, eta Elgoibarretik Soralezera doana da kasu nabarmenetako bat. Bizkaian ere, Meñakotzen, Fruizen edo Enekurin azaleratze bolkanikoak dauden arren, Erandiokoa apartekoa dela nabarmendu du: «Astrabuduko azaleramendua berezia da nagusiki trakitez osatuta dagoelako. Arroka bolkaniko hauek aurkitzea ez da hain ohikoa, eta batez ere hain kolore argikoak izatea». Arre eta zuri koloreko harri bolkaniko horiek feldespatu alkalinozko kristalez osatuta daude eta itxura trinkoa dute, ehundura zimurtsuakaz; hortik dator kio izena, *trakis* zimurtsua esan gura baitu grezieraz.

Erandioko ondar bolkanikoek itsaspeko sumendi baten zantzua guztiak dituztela dio Alonsok: «Dakigu itsaspean sortutako sumendiak direla, laba-jarioek *pillow-laba* izeneko





Axpen zegoen Metalquimica lantegiaren irudia eta mendiaren magalean zegoen harrobia, Deabruaren haitzak deitzen zirenak. IREKIA

tutu formako egitura dutelako. Laba krateretik ateratzen doan heinean, uragaz kontaktuan jartzen da eta berehala gogortzen da kanpotik barrualderantz, horrek tutu moduko forma hori ematen dio».

Prozesu bolkaniko hori duela 110 eta 90 milioi urte inguru gertatu zen, eta ez zen bat-bateko fenomeno izan. «La Palmako sumendiarekin gertatzen den bezala, hemen ere momentu lasaiagoak erupzio aktiboagoekin tartekatuko ziren, eta magma pixkanaka joango zen ateratzen», zehaztu du adituak.

Gaur egun, Euskal Herria ez da eremu bolkanikoa eta, unibertsitateko irakasleak azaldu duenez, hemengo fenomeno ez da ohikoena, «normalean, bulkanismoa plaka tektonikoen ertzetan ematen da, Ozeano Barreko Suzko Eratzunean adibidez, baina, beste batzuetan, plaken barruan ere eman daiteke». Horren adibide dira Hawaii eta Kanariar Uharteak, plaka tektoniko baten erdigunean egon arren mantuko magmaren igoerako eremuetan daudelako azaleratu baitira.

ARROKA BOLKANIKOAK. Sumendi horren arrasto ikusgarrienetakoak Astrabuduko futbol zelaiaren ondoko biribilgunean dauden borobildutako hiru harri handiak dira. Askok bonba bolkanikoak bezala izendatu dituen arren, Alonsok ezeztatu egin du hori eta arroka bolkanikoak direla dio. Erupzioak lasaiak direnean laba-koladak edo mihi horiek ateratzen dira, eta magma maldan behera erortzen da; aldiz, erupzioak leher-



«Astrabuduko azaleramendua berezia da nagusiki trakitez osatuta dagoelako. Arroka bolkaniko horiek aurkitzea ez da hain ohikoa, eta batez ere hain kolore argikoak izatea»

AINHOA ALONSO
GEOLOGIA ZIENTZIAN
LIZENTZIATUA ETA DOKTOREA
EHUN

Ondare geologikoa
«Uste dut kontzientziatu egin behar dela, biodibertistateaz hitz egiten dugu, baina geodibertistatea eta ondare geologikoa ere badago»

korragoak direnean, sumendiko leherketek magma zati txikietan jaurtitzen dute arroka piroklastiko modura. Zati horien tamainaren arabera errautsa bolkanikoak edo bonba bolkanikoak izan daitezke. «Guk hemen ditugun harriztar horiek leherketaren izaera izateaz gain, maldan behera joan direnean itsasten joan zaizkien beste arroka batzuen zatiak ere badituzte, hala nola beira bolkanikoak, basaltoak eta trakitak. Beraz, arroka bolkanikoen eta sedimentarioen arrastoak dituzte», azaldu du. Horrez gain, beren forma esferikoa azken milaka urteetan emandako fenomeno kimiko, biologiko eta meteorologikoen eraginez jasandako zatiketaren meteorizazioaren emaitza da.

ONDARE GEOLOGIKOA. 1990eko hamarkadan, Bizkaiko Foru Aldundiak interes geologikoko gune izendatu zuen eremua. Hala ere, ezjakintasunagatik eta bestelako arrazoiengatik, asko eraldatu ditu gizakiak Erandioko sumendiaren arrastoak. Adibidez, 2021ean, hainbat erandioztarrek salatu zuten hirigintza proiektuek aztarnak ezabatzen ari zirela.

Besteak beste, Astrabuduan egin zituzten babes ofizialeko etxebizitza batzuk eraikitzeke lanetan, kuaternarioko terraza batean duela milaka urte ibaiak utzitako errekarrien aztarnak hondatu zituzten. Ibaiko terraza sedimentario hori oso berezia zela dio Alonsok, «suntsitu aurretik, sedimentuak oso argi ikusten ziren, eta gure inguruan horrelako adibide oso gutxi daude». Orduan, Erandioko



Axpuruko trakitak bereziak dira duten kolore argiengatik; normalean ilunagoak dira.

Auzokideok plataformako kideek salatu zuten arroka horien azalera zuzen zirela, eta eskatu zuten ondare geologiko hori zaintzeko eta horren berri emateko ibilbide didaktiko bat egiteko proposamena egin zioten Udalari.

Horrez gain, XIX. mendean, sumendia harrobi bezala erabili zuten itsasadarraren kanalizazio-lanetarako, eta mendiaren eta ibaiaren artean Metalquimica lantegia ere jarri zuten, gerora, Astrabuduan kutsaduraren aurkako hainbat protesta eragingo zituen lantegia, hain zuzen.

«Nik uste dut kontzientziatu egin behar dela; biodibertistateaz hitz egiten dugu, baina geodibertitate eta ondare geologikoa ere badago. Egia da askotan ezjakintasun kontu bat izaten dela; hori apurtzera etorri zirenek seguruenik ez zuten jakingo hor zer zegoen, norbaitek jakinarazi beharko zien», adierazi du Alonsok. Zientzialariak erantsi du Euskal Herri guztian badaudela babestu beharreko interes geologikoko puntu batzuk, eta batzuek behar bezalako aintzatespena duten arren, beste batzuk ez daude hain ondo babestuta. «Uste dut azken urteetan Erandion lan handia egin dela bertako harri bolkanikoak ezagutzeko, eta herritarrak ere zer dutenez kontzientziatu dira, beraz, pentsatzen dut jakitun direla hemen zer daukaten», dio ikerlariak.

Kontzientziazio horren erakusgarri dira Udalak sumendiko aztarnak ezagutarazteko antolatzen dituen bisita gidatuak eta jarri dituzten informazio-panelak. ◀

XIX. mendean zehar Erandioko sumendian harrobi bat egon zen itsasadarreko kanalizatorako materiala ateratzeko. Besteak beste, Axpeko bihurtunean zegoen Fraidearen harkaitza ekiditeko egin zituzten lan horiek, itsasgoran urpean geratzen zen haitz horrek hainbat arazo eragiten baitzituen itsasontzien nabigazioan.

Ibilbide geologikoa



Erandioko sumendiaren altxor geologikoa hurbiletik ezagutzeko, Erandioko Udalen Turismo Sailak ibilbide geologiko bat dauka prestatuta. Txangoa mendiaren azpian, Axpeko harrobian dagoen aparkalekuan hasten da. Bertatik, arre kolorea duten sumendiaren haitz trakitikoak argi eta garbi ikus daitezke.

Trenbidea Alzagarako norabidean jarraituz, Hirugurutzeta mendira igotzeko bide malkartsua hasten da. Deabruaren haitzak izaneko eremutik gora, harkaitz bolkanikoen eta trakiten artean mendiaren tontorrera heldu arte.

Hirugurutzeta edo Axpuru mendiaren tontorretik itsasadarraren ikuspegi ederra dago, baina inguruari arretaz erreparatuz gero, sumendiaren krateraren oinarria antzeman daiteke. Zehazki, bertan dauden hiru gurutzeen azpian dago krater zaharra izan zitekeena. Gainera, inguruan sumendiaren hainbat aztarna ikus daitezke: trakitak eta lapili-tobak, besteak beste. Horren berri ematen duen panel informatibo bat ere dago bertan.

Harrobi zaharraren goiko bazterretik doan bidea jarraituz, Kuaternarioko terraza batera heltzen da bidea.

Ibilbidea Astrabuduko futbol zelaiaren ondoan bukatzen da, bertan, hiru arroka bolkaniko ikusgarri apaintzen dute biribilgunea.

Harrobiko aparkalekura itzultzeko bidean, Atxutegi kalearen ondoko pasabidean, eskuinaldera arretaz begiratuz gero, harri trakitikoaren gainean ibaiak duela milaka urte utzitako errekarrien arrastoak ere ikus daitezke.

Getxo Martin Deunako jaiak



Festa giroan murgilduko da Hezetasuna auzoa

Azaroaren 10etik 12ra, Martin Deunako jaiak eztanda egingo dute Algortako Hezetasuna auzoan. Tokiko jai-batzordeak antolatuta, adin guztientzako hamaika jarduera egingo dira gozagai inguru horretan.

Udako festen ajea gaindituta, udagoieneko ospakizunen ordua heldu da. Hala, Getxoko hurrengo hitzordua Algortako Hezetasuna auzora helduko da, azaroaren 10etik 12ra. Egun horietan, Martin Deunako jaiak ekintzez beteko dute ingurua, Hezetasuna auzoko jai-batzordearen lanari esker. Barikuan emango diete hasiera festei, 17:00etan, txupinaren jaurtiketaz, eta domekan txerria 20:00etan erre bitartean, auzokideek hamaika jardurez gozatzeko aukera izango dute. Ondoko zutabearen horien lagin bat topatuko duzue, baina egitarau osoa www.hiruka.eus webgunean duzue eskura. ◀

Ekitaldi batzuk. Egitarau osoa: hiruka.eus

Azaroak 10, barikua

- 17:00 Txupina, Areneazpin.
- 17:00 Triki eta Pandero ikasleen kalejira, Areneazpitik.
- 17:30 Buruhandiak eta txistulariak, Iturgitxiko parketik.
- 18:00 Diskofesta, karpan.
- 19:00 Umeentzako jolasak, karpan.
- 19:00 Ikastolako umeen eskupilota partida, Ikastolako frontoian.
- 20:30 Gaztetxoentzako DJ-a, karpan.
- 22:00 Kontzertuak: Nazka eta Bidean erromeria, karpan.

- 17:00 XXXI Aurrekularien Txapelketa, Ikastolan (Agurraren jaialdia).
- 17:00 Umeentzako futbola (5-10 urte) 3x3 partidak, zabalgunean.
- 18:00 Motx pailazoa: *Kontu kontari*, Ikastolako gimnasioan.
- 19:00 Dantza-plaza, Ikastolan.
- 20:15 XXXII Fandango eta Arin Arin Txapelketa, Ikastolan (Agurraren jaialdia).
- 22:00 Kontzertuak: Arene 6 eta Urtz, karpan.

Azaroak 11, zapatua

- 11:00 Igel-toka eta tiragoma txapelketa, Ikastolan.
- 11:00 Puzgarriak, karpan.
- 11:00 Umeentzako tailerrak eta Marrazki Lehiaketa, Ikastolan.
- 15:00 Herri bazkari, karpan.

Azaroak 12, domeka

- 10:00 LIII. Villamonteko Cross-a, Mikel Garcia San Miguel II. Oroimenezkoa.
- 10:00 XLV. Lapikoko Txapelketa
- 18:00 Kontzertuak, La Mara eta Jose de Arte, karpan.

ERDIGUNEAN ZU

SANIKOLAS.EUS

Areneazpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

Getxo Argia Ereiten Euskara Saria

Haria elkarteak sarituko dute, gazteen artean euskara sustatzeagatik

Getxoko eta inguruko neska-mutilen artean aisialdia euskaraz sustatzeko egindako ahaleginak aitortuko dizkio Getxoko Udalak Haria aisialdi-elkarteari, azaroaren 7an.



Haria euskal aisialdi-elkarteko boluntarioak. © HARIA

Azaroaren 7an, martitzean, Getxoko Argia Ereiten Euskara Saria banatuko dute Algortako Muxikebarri Antzokian. Aurtengo edizioan, Haria euskal aisialdi-elkarteari egingo diote aitortza, tokiko eta inguruetako neska-mutilen artean euskarazko aisialdia sustatzeagatik.

Getxoko aisialdi-elkarte horrek 2020an ekin zion ibilbideari, COVID-19aren pandemia bete-betean. Orduan, 12 eta 17 urte arteko neska-

mutilentzako udaleku ibiltaria egin zuen, eta 10 gaztek gozatu zuten egitasmo horretaz. «Giro euskalduna, eskualdeko ondarearen ezagutza, mendizaletasuna, kulturartekotasuna eta hainbat balorearen lanketa» sustatu gura izan zuten horregaz, Uribe Kostan ibilbide zirkular bat egin zuten bitartean. Orduan, urtero mota horretako beste hainbat ekimen egin dituzte eta, parte hartzea ikusita, arrakastatsua izaten ari da tokiko gazteen artean. ◀

Berango Azaroaren 25a

Kontakizun laburren eta komikien lehiaketak antolatu dituzte

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, gai hori abiapuntutzat hartuta, kontakizun laburrak edo komiki bat egiteko deia egin du Kultur Etxeak. Komiki lehiaketa haur liburutegiak antolatu du, eta kategoria bi egongo dira, 6 eta 11 urte bitartekoa, eta 12 eta 16 urte artekoa. Parte hartzaileek lan bakarra aurkeztu ahal izango dute, euskaraz, gaztelaraz edo ingelesez. Kontakizun laburren kasuan, berriz, 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute, eta kategoriak hizkuntzaren arabera egongo dira banatuta, euskaraz eta gaztelaniaz. Bi lehiaketen kasuan, lanak aurkezteko epea azaroaren 17an amaituko da, 19:00etan eta 20:00etan, hurrenez hurren, eta sariak hilaren 25ean banatuko dituzte. ◀

Berango Langabezia

Udalak lau langabe kontratatuko ditu datozen egunotan

Berangoko Udalak, Uribe Kostako Behargintzaren bitartez, udalerrian erroldatutako lau langabe kontratatuko ditu bost hilabeterako. Kontratazioak lanaldi osoak izango dira eta, aurreikusitakoaren arabera, abenduaren 31 baino lehen izango dira. Guztira, Uribe Kostako Behargintzak, Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako 27 pertsona kontratatuko ditu. Informazio gehiago, hiruka.eus-en. ◀

irati
MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
Torrean, 2 48991 – ALGORTA

bai
euskarari

ARANTZA ETXEBARRIA
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

Leioa Kurkudi mendiko kirolegia

Leioako Udalak komentu zaharreko lurak birkalifikatzea onartu du

Urriaren 26ko Leioako Udalaren osoko bilkuran, EAJ, PSE-EE eta PPren botoei esker, aurrera atera zen Domingotarren komentu zaharreko lurren birkalifikazioa. Erabakiak eremua urbanizatzea baimendu eta bertan eraiki gura duten gimnasioa babestu du.

Bozketaren aurretik, SOS Kurkudi plataformako kideek proiektuaren aurkako argudioak azaldu zituzten. Besteak beste, adierazi zuten egitasmoak lurzoru naturalaren galera eta udalerriko ibilgailuen joan-etorria areagotuko lukeela, kutsadura gehiago eraginez; gainera, ez zuten baztertu Udaltzatzen erabakia epaitegietara eramatea.

«Epaitegietara eta behar den lekura jotzeko hitza eta gogoia geratzen zaizkigu»

ALBERTO SANTO TOMAS
SOS KURKUDI

EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek aurka bozkatu zuten. Mari Jose Peleteiro soberanistak «atzera ez egiteko printzipioaz» hitz egin zuen, eta galdera hau egin zuen: «Zenbateraino ez da ingurumen-zuzenbidea giza eskubide bat?».

Azkenik, EAJko Iban Rodriguez alkateak arrazoitu zuen lursail horrek erabilera desgokiak dituela gaur egun, proiektuak lanpostuak sortuko dituela eta Kurkudi mendiko hainbat eremu udal-jabetzakoak izatera pasatuko direla, basoa hedatzea ekar dezakeena. «Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundiaren txosten guztiak, barnekoak zein sektorialak, aldekoak dira», gaineratu zuen. ◀



Leioaren 497. urteurreneko ospakizunak.

Urriko azken aste-akabuan, Leioaren urteurreneko ospakizunak abiatu zituzten Artatza jauregian. Bertan, demokrazian izandako lehen emakume zinegotziak omendu zituzten, besteak beste. © LEIOAKO UDALA



**KALITATEZKO HEZKUNTZA
EUSKARAZ**

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84, (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94.464.23.64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVA...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.


ikastolenelkartea



AZAROAK 10 NOVIEMBRE
Auditorium // 20:30 // 10 €

¡VAMOS QUE NOS VAMOS!
Golden Apple Quartet (Euskadi)



*musika
con alma*



AZAROAK 17 NOVIEMBRE
Auditorium // 20:30 // 10 €

POP ROCK
Bizkaiko Ingeniarien Abesbatza (Euskadi)



*musika
con alma*



AZAROAK 19 NOVIEMBRE
Auditorium // 18:00 // 6 €

ARRAINAK BIHOTZEAN
Mar-Mar Teatroa (Euskadi)



AZAROAK 26 NOVIEMBRE
Auditorium // 19:00 // 12 €

LA PANADERA
CDN, Açafrao Producciones, El Silencio Teatro e Iria Producciones
(Comunidad de Madrid)



© Luz Soría

Sopela Musikaren Eguna

Tokiko zuzeneko musika bultzatuko dute azaroaren 18an

Egun osoko egitaraua prestatu du Sopelako Kuadrillak taldeak, azaroaren 18an, zapatuan, antolatutako Musikaren Egunerako. Hala, zuzeneko musika sustatzeko ekintza ugari egingo dituzte goizean zehar, besteak beste, musika azoka, instrumentuak egiteko tailerrak eta Ubuntu eta Aseloth taldeen kontzertu akustikoak.

Gainera, 15:30ean, kuadrillen bazkaria egingo dute. Bertan izena emateko, kuadrilla bakoitzak mezu bat bidali beharko du sopekoor@gmail.com helbidera azaroaren 14a baino lehenago. Horrez gain, gauean hiru kontzertu egongo dira: Txerri Ugerrak, 20:00etan, Moonshine Wagon, 21:30ean, eta Bidean Erromeria, 23:00etan. ◀

Sopela Etxebizitza

Loiolan alokairuko 24 BOE eraikitze lanak hasi dituzte

Guztira, babes ofizialeko 24 etxebizitza egingo dituzte: logela bateko bost, bi logelako 13 –horietako bat mugikortasun urriko pertsonentzat egokituta–, eta hiru logelako sei. Halaber, etxebizitza bakoitzak atxikitako garaje-partzela bat izango du. Esleipen-prozesua Etxebideri egindako eskabidearen bidez egingo da. Hala, sisteman alta emateko unea kontuan hartuko da etxebizitzak esleitzeko orduan. ◀

Urduliz Mecaner lantegiaren itxiera

Mecanerrek langileek bost greba egun burutu dituzte



Bosgarren greba egunak % 100eko jarraipena izan zuen. LAB

Urriaren 25ean, Mecaner lantegiko beharginek euren bosgarren greba eguna egin zuten, berriro ere, %100eko jarraipenagaz. Hala, hainbat mobilizazio egin dituzte lantokiko 148 langileren lanpostuen defentsan, baita euskal industriaren etorkizunaren alde ere. Azken greba egunean, urriaren 25ean, behargin guztiek elkarretaratzea egin zuten Gerediagako Batzar Nagusiaren atarian: bertan,

alderdiak interpelatu zituzten Stellantis multinazionalak fabrika itxeko duen asmoaren aurrean paper aktibo bat joka zezaten eskatzeko. Hala, bost greba egunen eta hainbat mobilizazioen ostean, langileek azpimarratu dute borrokan jarraituko dutela, saretzen eta alternatibak eraikitzen: «Gure industriaren desmantelamentu progresiboaren aurrean, herri gisa borrokatzea eta erantzutea baino ez da geratzen». ◀

Biharko mundu berdinzalea

ikastolenkartea

ander deuna
IKASTOLA

Biharko mundua
gaur eta hemen

Urbe Kosta Etxerik Gabeko Pertsonen Eguna

Etxebizitza duin bat izateko eskubidea aldarrikatu dute

Etxebizitza bat izateko eskubidea bermatuko duen gizarte bat aldarrikatu dute dozenaka lagunek Etxerik Gabeko Pertsonen Egunean, «Euskadiko Etxebizitzaren Legean eta Giza Eskubideen Gutunean jasotzen den bezala».



Algotan egin zuten elkarretaratzea, Telletxe plazan. IKER TORRE NAVARRO

Beste Bi plataformako gizarte-erakundeek deituta, etxerik gabeko pertsonen ahotsa aldarrikatzeko eta horien egoera ikusgarriagoa egiteko mobilizazioa egin zuten dozenaka lagunek joan den urriaren 26an, egunean, Etxerik Gabeko Pertsonen Egunean.

Urtero egiten duten mobilizazioa izan zen urrikoa eta, oraingoan, «Partekatu zure sarea» goiburua egin zuten. «Gure leloak, bere sakonean, pertsonen eguneroko harremanak lotzen dituen lotura irudikatu nahi du, afektuak eta laguntza partekatze-ko eremua; elkartasuna eta, batez ere, gizatasunarena», azaldu zuten deitzaileek.

Algotan batzeaz gainera, EAEko beste hainbat udalerritan egin zuten agerraldia, politikoei eta herri-tarrei euren mezua ahalik eta modurik ozenenean helarazteko. Izan ere, gogoratu zuten arazo larri ho-

ren aurrean kontzientzia sare bat sortu gura dutela gizarte gisa.

2022ko urrian egindako azken azterketaren datu ofizialen arabera, 3.380 pertsona daude EAE bizitegi-bazterketa larrian, hau da, ez dute etxebizitzarik. «Honek, pertsona hauek kaleko bizitzaren egoera txarretan eta arriskueta bizirik irautera behartzen ditu», azaldu zuten. Gaur egun, ordea, kopuru hori are handiagoa dela azpimarratu zuten. «Benetako giza tragedia da, zeina zenbat eta handiago den, orduan eta ez-moralago bihurtzen den gizarte-larrialdia da. Ahulenen beharrei erantzuten ez dien gizarte porrot egin duen gizarte da», salatu zuten Algotako mobilizazioan.

Larrialdia, gainera, are okerragoa da pertsona haien artean, azaldu zuten, etxerik ez izateak zerbitzu publikoko prestazio eta baliabide batzuk ezin eskuratzea dakarrelako, bazterkeria, bakardadea eta, oro-korreen, pobrezia eraginda. ◀

Euskarari atera kontuk!

JOANES ATXA OLAIZ



Urtea hiltzera doanean, hitzak berpizten

Gau hotz eta ilun batean, haizeak musika soinua eragiten zuen zuhaitz biluzietan zehar. Haurren oinek hosto lehorrak kraskatzen

zituzten, aurpegia estalirik eta arropa zaharrekin jantzita, herriko bazterrak nahasten zebiltzan bitartean. Giroan tentsio goxo txiki bat usaintzen zen...».

Izan zitekeen Illinois, Bavaria edo Urbe Kosta. Udazkenarekin lotutako erritoei unibertsaltasun kultural harrigarria dute. Mundu osoko kulturek udazkenarekiko trantsizioa besarkatu dute, neguaren ataria ospatzeko. Kristautasunak, aitzitik, erritu horiek hildakoak gurtzeko une gisa ezarri zituen, agian, urtea itzaltzera doala gogoratzen digun urtaroa ardatz hartuz. Izenak hamaika badira ere, erritual horien esentziak bere horretan dirau: urtea hiltzera doan honetan, jasotako uztarekin batera hildakoak ohoratzea.

Erritual horien aldagai famatuena kalabazak hustu eta argizatzeko ohitura izan da. Hala ere, gurean, kalabazekin batera **kinpulek** (tipulak), **zenorik** (azenarioak), **untxurrek** (intxaurrak) eta bestelako **ortuarik** (barazkiak) izaten dira protagonistak.

Tabu izatetik hizketagai izatera igarotzen da heriotza **Domusanturu** egunaren bezperan, Bizkaiko herri askotan horrela izendatzen baita azaroaren lehena. Gainera, bada gure herrietan aspalditik erabili izan den berba bat, uzta eta hildakoak ezin hobeto barne biltzen dituen: **ortusantu**. Gure inguruko herrietan horrela esaten diogu hilerriari. Heriotzaren eta udazkeneko zikloaren pertzepzio honek erritual espiritualen bilakaera kultural interesgarria islatzen dute, zalantzarik gabe. Ikuskizun datozen urteetako erritual berriek zenbat hitz sorraraziko dizkiguten... ◀

Erendio Aparkatzeko neurriak**Auzoetan TAO jartzea aztertzen ari da Erandioko Udala**

Aitziber Oliban alkateak baieztatu du Erandioko zenbait auzotan aparkalekua arautzeko TAO sistema ezartzea ikertzen ari direla. Azaldu du udalerriaren bi muturretan dauden Leioan eta Bilboko San Inazio auzoan daborduko martxan dagoela eta Erendio aparkaleku librea duen udalerrri bakarria dela. Zehaztu duenez, «ezin litzateke Altzaga, Astrabudua eta Lutxana baino gutxiago izan, eta gehiago izan behar bada, ikertuko dugu».

Sistema hori ezartzeko proposamena ez da berria, duela urte batzuk ere eztabaidatu baitzen, «orduan, egoera ezberdina zen, inguruko udalerriek ez zuten TAOrik, beraz, egitasmoa baztertu egin zen». Orain, panorama aldatu egin dela adierazi du Olibanek, eta TAOren ezarpena «seriotasunez aztertu beharreko gaia» dela esan du. Gainera, iragarri du daborduko ordenantzak aztertzen ari direla. ◀

Plentzia Udalaren proiektuak**Udalak hainbat egitasmoren berri eman die herritarrei**

Udalak hiru bilera informatibo egin ditu urrian, herrian bultzatu gura dituzten proiektuen inguruan herritarrak informatu eta horien iritzia jasotzeko.

Batetik, gobernu-taldeak Saratxaga auzoko sarbidea egokitze egitasmoa azaltzeko bilera informatiboak egin ditu. Aitor Garagarza alkateak azaldu du errepidea urbanizatu eta espaloia jarri gura dutela bertan.

Bestetik, metro-geltokiaren eta Txipio auzoko sarbidearen ingurua berrantolatze proiektua ere aurkeztu dute, eta, bukatzeko, herriak duen aparkaleku-arazoari irtenbide

bat bilatzeko ere elkartu dira. Garagarzak adierazi du TAO bezalako sistema ezartzea baztertu dutela, herrian aparkaleku gutxi dagoelako. «Erroldatuentzako, uda pasatzera datozenentzako eta gainontzekoentzako sistema izan daiteke, baina momentuz zehazteke dago eta baliteke hurrengo udan oraindino prest ez izatea. Horretarako, Deba, Mundaka edo Zumaia bezalako sistemak ari gara aztertzen». ◀

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Etxean zure kotxea jasotzeko zerbitzua eskaintzen dugu!*NEGUAN, IZAN ZURE KOTXEA PREST:**

Automobileko **bateria errebisatu** eta, beharrezkoa bada, alda ezazu.

Olio, hozgarri, haizetako garbitzaile eta **balaztako likidoen mailak** ikusi.

Botika-kutxa egokia eta **manta** eroan.

**ITV-a gainditzeko irizpideak ematen ditugu!*

Pneumatikoak aztertu. Komeni da neguko pneumatikoak edo elur-kateak eroatea.

Argi- eta balazta-sistemak aztertu.

Haizetako-garbigailuak aztertu.



Eva Gonzalez Ayestaran Osatoki Osasun Eskolako zuzendaria

«Indarkeria obstetrikoak traumak eta min emozionalak sortzen ditu»

Biolentzia obstetrikoaren inguruko tailerra eman du Eva Gonzalez Ayestarenek Leioako LAKET Jabekuntza Eskolan. Bertan, hori detektatzeko, prebenitzeko eta komunikatzeko tresnak eman ditu.

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Zer da biolentzia obstetrikoa? OMEren arabera, biolentzia obstetrikoa da emakumeek haurdunaldian edo erditzerakoan jasaten duten indarkeria. Bi eratan eman daiteke: tratu txar fisikoen edo baimenik gabeko prozedura fisikoen bidez, edota indarkeria psikologiko eta psiko-emozionalaren bidez, umiliazioa edo hitzezko abusuak erabiliz. Esaterako, erditze batean, emakume bati analgesikoa jarri zioten zain barnetik, eta hori kezu zen hala ere mina sentitzen zuelako. Medikuek batek isiltzeko esan zion, ezin ziola hainbesteko min eman, analgesia baitzuen. Hala, nahiz eta kepatzen jarraitu, ez zioten kasurik egin; beranduago, konturatu ziren itogina ez zutela ireki. Horixe da indarkeria psiko-emozionalaren adibide bat. Itogina irekita egon izan bazen ere, pertsona horiek emakume hori entzun eta artatu behar zuten.

Nola identifika dezake emakume batek biolentzia mota hori pairatzen ari dela? Ez da erraza. Horregatik, alde aurreko prestakuntza egitea oso garrantzitsua da. Indarkeria fisikoak errazago identifikatzen dira. Indarkeria psikologikoaren kasuan, askoz ere sotilagoak dira, izan



Komunikazio- eta osasun-prestakuntzak ematen ditu Gonzalezek. AROA SOTELO VELASCO

Botere-harremana

«Kontsulta batera edo erditze-gela batera doan emakumeak botere-harreman bertikala biziko du, non agintaritza duen pertsona profesionala izango den. Askotan, haiek ez dira jabetzen aurrean dagoen pertsonarekiko botere-harremana dutela, eta hori oso larria da, horrek abusua errazten baitu. Emakume bat zure kontsultan sartzen denean, jada ez da kaleko emakume bat, zure pazientea bihurtzen da»

ere, emakumearen autoestimua, bere bizi-tzan dituen harreman moten eta bere ahalduntze mailaren arabera, errazagoa edo zailagoa egingo zaio hautematea. Hala ere, beti du eragina emakumearengan. Agian ez daki zehazki zer gertatzen ari den, baina trauma batez eta min emozional batez irtenko da erditze-gela edota kontsulta horretatik.

Ba al dago indarkeria honen aurkako protokolo espezifikorik? Erditzeen kasuan, emakumeek erditze-plana izeneko dokumentua dute beren erditzea nolako izatea gura duten erabakitzeko. Hala, erabaki dezakete ea uzkurduz jabetu gura duten edo ez, zer kasutan beharko litzatekeen zesarea, etab. Hala ere, nahiz eta protokoloa egon, gero ez da praktikara eramaten, eta orduan gertatzen da indarkeria obstetrikoa. ◀



GetxoGasolera irratia

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

Iñaki Bitxitegia



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

Uribe Kosta «Adineko emakumeok badugu zer esan» tailerra

Emakume nagusiak hitzaren bitartez ahalduntzen

Errespetu- eta konfiantzagune bat sortzeko asmoz, EDE-Suspergintzak adineko emakumei ahotsa eman eta horiek ahalduntzeko tailerrak ematen ditu.

Duela gutxira arte, adineko emakumeek jasandako indarkeria ikusezina izan da, beraien kasuan, generoaren eta adinaren arteko elkarguneari erreparatu behar baitzaio. Emakume horien aurkako diskriminazioak eta indarkeriak forma, esanahi eta ondorio desberdinak dituzte, gainerako emakumeentzat ez bezala. Gainera, adineko emakume askori kosta egiten zaie indarkeriaren biktimak direla aitortzea, gizarte patriarkal batean heziak izan direlako. Sistema horrek normalizatu eta legalizatu egiten zuen emakumearen rola emazte, ama eta zaintzaile figuren barnean, eta eremu pribatura baztertzeko zituen.

TAILERRAK. Emakume horiek naturalizatu egin dituzte genero-rolak, ezkontzaren banaezintasunaren sinesmena, baita etxean gertatzen den guztiak eremu pribatuan jarraitu behar duenaren ideia ere. Aldaketarekiko erresistentziak, mendekotasun ekonomikoak eta bakardadearekiko beldurrak, ikasitako babesgabetasun-sentimendua sortzen die.

Carolina Carazo EDE Fundazioa-Suspergintza Intervención Social enpresako langilea da, eta beste lankide batzuek batera, adineko emakumeen aurkako indarkeria detektatzeko, sentsibilizatzeko eta prebenitzeko gune izan gura duten *Adineko emakumeok badugu zer esan* tailerrak egiten ditu. Horien bitartez, 65 urtetik gorako emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboa bilatzen dute, haiek epaitu gabe entzunak eta ulertuak izan daitezten, ikaskuntza kolektiboa eta sororitatea erraztuz.

EAEko biztanleriaren % 13a 65 urtetik gorako emakumeak direla adierazi du, baina horiek ikusezin bihurtzeko joera dago, «edadismoagatik» eta gaztetasun- eta edertasun-estereotipo sozialei ez erantzuteagatik. Adineko emakumeek bizi-itxaropen handiagoa dute gizonek baino, baina baldintza okerragoak di-



Beste askoren artean, EDE Fundazioak Getxon egiten ditu tailerrak.

«Programa adineko emakumei ez ezik, haiekaz lan egiten duten profesionali eta boluntarioei ere zuzenduta dago.»

CAROLINA CARAZO
EDE FUNDAZIOA-SUSPERGINTZA
INTERVENCIÓN SOCIAL
ENPRESAKO LANGILEA

tuzte beraien generoagaz zuzenean lotutako aldagaiak direla eta.

Carazok nabarmendu du orain arte oso gutxi artatzen zen gaia zela, «nahiz eta gerontologia eta erakundeak gero eta azterketa gehiago egin, oraindino bide luzea dago indarkeria matxistaren biktima diren adineko emakumei arreta espezifiko emateko».

Carazok nabarmendu du indarkeria matxista jasan duen emakume bakoitzak bere erara bizi izan duela, eta feminismoaren ideia aipatu ere egiten ez zenean, emakume askok beren ahalduntze-bide propioa egin zutela. «Zer erakutsiko diot nik lan egin eta seme-alabak eta bilobak hazi dituen 90 urteko emakume bati? Gu horretaz jabetu daitezten saiatzen gara, beren ingurunean ere eragina izan dezaten», azaldu du. Programaren helburua da emakume horien begirada zabaltzea, haien egoeraz gehiago jabetzea eta erabakiak askatasunez hartu ahal izatea, interesak eta motibazioak berraurkitzea, mugak jartzen ikastea eta beren bizi-plana sortzea, norberaren zainztatik eta ongizetatik abiatuta. ◀

Uribe Kosta Azaroak 30

Denon bizitzak erdigunean kokatuko ditu zaintza-sistemaren greba orokorrak

Mugimendu feministak zaintzarako eskubide kolektiboaren aldeko aldarria egin du: azaroaren 30ean greba feminista orokorra deitu du Hego Euskal Herri osorako. Hamaika kolektibo bat dira ere.

Hamaika kolektibo, eragile sozial eta sindikatu batu dira Hego Euskal Herriko mugimendu feministak gidatutako azaroaren 30eko greba feminista orokorrera. Greba hau, ordea, pandemia garaian hasi zen lanketa eta prozesu oso baten parte da. 2022ko otsailean, Gasteizen elkartu ziren hainbat kide feminista Euskal Zaintza Sistema Publiko eta Komunitarioa ezaugarritzen hasteko. Hala, Denon Bizitzak Erdigunean dinamika aurkeztu zuten epe ertain-luzeko prozesu gisa: helburu nagusia da egungo zaintza sistema eraldatzea.

Halaber, herri akordio bat osatu dute hainbat eragile sozial, kolektibo eta sindikatugaz batera zaintza eskubide kolektiboa lortzeko xedeagaz. Hala, denek batera, EAEko eta Nafarroako gobernuak interpelatu gura dituzte. Gerora, negoziaketa edota eraikuntza fase bat irudikatzen dute, aldarrikapen horiek egikaritzeko eta hitzarmenak osatzeko.

Uribe Kostako mugimendu feministak ere eskualde mailako asanbladak egin ditu kide guztien artean koordinatzeko eta sartzeko. Urrira arte, bilera ezberdinak egin dituzte prozesuaren eta grebaren oinarriak ezartzeko. Hala ere, mobilizazio orokorra izanik, denak batu dira antolaketa marko nagusietara. Urriaren 7an, Hernanin aurkeztutako Herri Akordioa abiapuntu hartuta, greba komite mistoak sortu dituzte herriz herri, eta auzoz auzo. «Grebaren bidez, gaur egungo sisteman nork, nor, noiz, zergatik eta zeren truke zaintzen dugun bistaratzea da helburua, bakoitzak bere gain dagoena eginez eta erakundeei dagokiena exijituz; denon bizitzak erdigunera ekartzeko bidean», azaldu dute.

Hala ere, greba feminista orokor bat antolatzekeo prozesuan zailtasunak daude: «Orain, erronkarik handiena da aliantzak egitea, dibertsitatea ulertzea eta uztartzea. Eroso bizi diren horiek —oro har, gizonak— mobilizaraztea, zaintzaren gaia guztioi dagokigula ulertaraztea, eta horretan dihardugula, indarrak



Uribe Kostako mugimendu feministak hainbat bilera egin ditu A30eko greba antolatzeko.

Eskubidea eta erantzukizuna

«Modu eta maila desberdinetan bada ere, denok eta bizitza osoan zehar behar dugu zainduak izan, eta, beraz, zaintzarako eskubidea izan behar du pertsona orok. Baina eskubidea ez ezik, denon betebeharra ere bada. Zaintzen birbanaketa aldarrikatuko dugu, zaintzarako eskubide eta erantzukizun kolektiboaren aldeko apustua eginez. Horrek, beraz, egungo zaintza-sistema osoa iraultzea dakar, haren ordez, sistema publiko komunitarioa eraikitzeko. Eta horretan instituzioek ardura handia dute; eskubideen bermatzaile diren heinean, zaintza berrantolatzeko eta demokratizatzekeo baliabideak jarri behar dituzte»

dosifikatzea eta ez etsitzea. Era berean, zaintza-sektoreetako langileen borroka eta gatazketatik ikastea ere badagokigu, elkar aitortu eta zaintzea», onartu dute.

Halaber, gizonek ere ardurak hartu, eta prozesuaren baitan kokatzeko beharra nabarmendu dute. «Protagonismorik gabe, baina aktiboki parte hartzea dagokie. Esan bezala, zaintzek denok zeharkatzen gaituzte, eta, beraz, hori ulertzetik eta ikuspegi horrekin posizionatu behar dira». Hala, azaroaren 30eko grebagaz espero dute zaintza esparru osoa problematizatzekeo bidea zabaltzea: «Guretzat oso garrantzitsua da greba egunaz haratago joatea; alegia, greba eguna mugarrira izango da, baina lehenago eta ostean sortuz goazen aliantzek eta sareek epe luzera begirako borroka-ziklo baterako ongarri izango dira. Grebaren antolakuntzaren baitan eta aldarrikapen zirimola horretan, kolektiboak elkartu eta helburu berdintsuen alde borrokatzen jarraitzea espero dugu».

Era berean, argi dituzte zeintzuk diren euren helburuak: «Eskubideen aitortza, borroka agerian jartzea, gure arteko saretzea eta kontzientziak astintzea dira gure xedeak. Eta, noski, erakunde publikoak gurekin esertzea, gure aldarrikapenak mahai gainean jarri eta defendatzeko».

Hala, koordinatzen eta lanean jarraituko dute zaintza denoi dagokigun erantzukizuna dela erakusteko, baita zaintza-sistema publiko komunitario bat eraikitzekeo ere. ◀



Mareen arteko bizitza

Bilboko itsasadarreko urek beren ertzetako biztanleen bizimodua markatu dute mendeetan zehar. Historiaren joan-etorri horien lekuko zuzenak izan dira Begoñako galeriak, eta horiek biziberritzeaz arduratzen den fundazioak lekukotasun hori islatu du «Mareen arteko bizitza» izeneko erakusketan.

Ondare horren lagin bat ekarri gura izan dugu orriotara, itsasadarreko mareen joan-etorriak bizimodu horietako asko desagerrarazi dituen arren, oraindino itsasadarra nolakoa zen gogoratzeko argazki zaharrak ditugulako.



Sardina-saltzaileak Getxoko kaleetan. GETXOKO LIBURUTEGIETAKO BILDUMA



Traineruek aspalditik nabigatu dute itsasadarretako uretan. GETXOKO LIBURUTEGIETAKO BILDUMA / DANIEL ZUBIMENDI




Altzagako moilan itsasontzien joan-etorria etengabea zen garai batean.
BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN ARTXIBOA



Angulak modu berean harrapatzen dira gaur ere. BILBOKO UDAL-ARTXIBOA

Mende hasieran, itsasontzietako merkantzia asko eskuz deskargatzen ziren. BURGOSKO UDAL-ARTXIBOA / CORTES FUNTSA



Sardinak batzen, Portu Zaharrean.





Nasapuntakoa Portu Zaharreko jaietan. GETXOKO LIBURUTEGIETAKO BILDUMA

GETXOKO LIBURUTEGIETAKO BILDUMA



Kirol-portua izan aurretik, arrantza zen nagusia gure kaian. GETXOKO LIBURUTEGIETAKO BILDUMA





Rojin Özlem Tanrikulu Kurdistaneko Kongresu Nazionala

«Ahduntzen diren emakumeek gizartea eralda dezakete»

Emakume kurduak edozein indarkeria motaren aurkako autodefentsa egiten dutela baieztatu du Kurdistaneko Kongresu Nazionaleko parte den Rojin Özlem Tanrikuluk. Urriaren 19an, Algortako Abian kulturgunean hitzaldia eman zuen, eta HIRUKAK beragaz elkartzeko aukera izan du Kurdistango emakumeen egungo egoera hizpide hartuta.

TESTUAK: NAHIA MARTINEZ GONDRA ARGAZKIA: AROA SOTELO VELASCO ►

Zein da emakume kurduen egungo egoera?

Emakume kurduak ia 45 urtez prestatu eta antolatu dira hurrengo filosofiagaz: «Emakume askea gizarte askea da, eta gizarte askea herrialde askea». Hori errealitate bihurtzeko borrokatu dute, pentsamolde nagusiaren, estatu-nazioen pentsamoldearen eta emakumeak boteretsuak ez direla dioen ideia-aren aurka. Borroka horietan, batetik, emakumeen borondatea erakusten saiatu dira eta, bestetik, borroka horiek alor guztietan eramateko erakundeak sortu dituzte, horiek errealitate bihurtzeko. Horiek guztiek eragin handia izan dute gizarte kurduan.

Oro har, esan dezakegu emakume kurduak aurrera egin dutela kontzientziarantz eta beren buruaren ulermenerantz, bai praktikan, bai borondatearen eraikuntzan. Beste era batera esanda, energia bat sortu eta mobilizatu bada ere, energia hori oraindino ez da bihurtu ulermen, kontzientzia eta borroka modu bat, oro har guztientzat eskuragarria.

Izan ere, pentsamolde txobinistak nagusi izaten jarraitzen du. Emakumeek indarkeria fisikoa eta femizidioak jasaten dituzte edonon daudela ere. Erresistentzia handia denean, eraso genozidak ere areagotu egiten dira. Hala, emakume kurduak bizitzako arlo guztietan jarraitzen dute borrokan genozidio politiko eta kulturalen aurka Kurdistango lau tokietan.

Jazarpena

«Emakumeek indarkeria fisikoa eta femizidioak jasaten dituzte edonon daudela ere. Erresistentzia handia denean, eraso genozidak ere areagotu egiten dira. Hala, emakume kurduak bizitzako arlo guztietan jarraitzen dute borrokan genozidio politiko eta kulturalen aurka Kurdistango lau tokietan»

Beste puntu geografikoakaz alderatuta, zer indarkeria espezifikoa jasaten dituzte emakume kurduak? Nortasuna, hizkuntza, eskubide kulturalak eta existentzia aitortzen ez zaizkion herrialde baten alabak gara. Mundu gerra bietan aberastasunak ustiatzeko lau zatitan banatu zuten lurralde bateko alabak gara, zeinetan ez diren faltatu gerrak, kanporaketak, jazarpenak edota sarraskiak. Indarkeria mota guztien aurka dauden emakumeek pentsamolde maskulinoa duen estatu-indarkeria jasaten dute. Berezi, Turkiak eta Iranek emakume kontzientziak hil, atxilotu eta torturatzen dituzte espetxeetan eta kaleetan. Emakume askok beren lurretatik migratu behar izaten dute, era guztietako teknikakaz hornitutako armadek beren bizi-eremuak bonbardatzen dituztelako. Ingurune ezezagunetan bizi behar izaten dute, eta ingurune horietara ohituta ez dauden bizitzak eta nortasunak izaten dituzte. Bestalde, haiek kolonizatzen saiatzen dira, gosearen eta pobrezia-aren bidez beren borondatea hautsiz.

«Jin, Jiyan, Azadi» edo «Emakumea, Bizitza, Askatasuna» da Emakume Kurduen Mugimenduaren leloa. Zer esan nahi du? Irango estatu-indarrek Jîna Amîni hil zutenen hainbat protesta egon ziren, eta lelo hori zen nagusi. Horren sortzailea da Abdullah Öcalan, herri kurduaren liderra. Ildo horretan, Öcalanek nabarmendu zuen emaku-

mea askatu egin behar dela bizitza libre bat gura badugu. Erresistentzia ez ezik, sistema berri bat eraikitzeko borondatea, indarra eta antolakuntza ere esan gura du. 1980ko hamarkadaren amaieratik gaur egunera arte, Kurdistanen *Jin* eta *Jiyan* hitzek sustrai bera dituztela adierazi zuen liderrak, baina sistema matxistek bi termino horiek elkarrengandik urrundu dituzte, emakumeak eta bizitza aldenuz. Pertsonen historiaren sorlekuan, emakumeen nortasuna eta bizitza galdu diren lekuan, askapena esan gura du.

Emakume Kurduen mugimendua ekologian, demokrazian eta emakumearen askapenean oinarritzen da. Nola lotzen dira hiru alderdi horiek? Konfederalismo demokratikoaren hiru zutabeak dira. Ekologiari dagokionez, gaur egun gizakiaren eta naturaren arteko harremana hautsi egin da. Sistema kapitalistak guztiari bere esentzia kentzen dio, isolamendua sortuz eta hori bere onurarako bakarrik erabiliz. Natura nahikoa izan da gaizki tratatua eta erabilia: lurrikarak, uholdeak eta luiziak dira horren guztiaren emaitza. Hala, natura gizakiaren indarkeriaren aurkako matxinada da. Modu horretan, emakumeen mugimendua ahalegintzen da naturaren eta gizakiaren arteko harremana behar bezala islatzeko kontzientzia sortzen eta hura ere biziberritzen.

Bestetik, kapitalismoak emakumeei eragin die, izan ere, merkantzia gisa erabili zituen bere sistemaren objektu estilistiko gisa. Baina emakumeek bizitza ordezkatzen badute, garrantzitsua da ikustea zein izan den emakumeen rola historian zehar eta gizarteetan izan duen energia, hori noiz eta non galdu den identifikatu ahal izateko. Emakumea eta berak sortutako energia berreskuratzea, gizezkoek menderatutako pentsamoldearen aurka borrokatzea litzateke.

Horrez gain, demokrazia ere garrantzitsua da: naturaren eta gizakien arteko, gizonen eta emakumeen arteko eta era guztietako desberdintasunen arteko harremanak zenbait printzipioen arabera antolatzen ditu. Emakumeen mugimenduak urteak daramatza borrokan emakumeen askapenaren ideologiaren bost printzipioen barruan: lurrarekiko atxikimendua, pentsamendu askea, antolaketak, borroka eta estetika.

Uste osoa duzue emakumea askatuz gizartea eralda daitekeela, eta ez alderantziz. Zergatik? Emakume libre batek gizarte libre bat bakarrik gida dezake. Horretarako, emakumeak boterearen ikuspuntu nagusitik eta pentsamolde estatistik urrundu behar dira



Algortako

Emakume libreak

«Ez dugu ahaztu behar bost mila urteko pentsamolde subiranoak oso egitura sakona sortu duela beren buruengan. Horregatik, garrantzitsua da emakumea eragin horretatik askatzea. Bere eginkizunak lehen planora pasatzen direnean, ikusten dugu nolako eragina duen gizartean»

intelektualki. Emakume bat ez da alderatu behar gizon bategaz. Bere botereaz eta bere indarrak fidatu beharko luke. Antolatzen eta ahalduntzen diren emakumeek bizi diren gizartea eralda dezakete. Ez dugu ahaztu behar bost mila urteko pentsamolde subiranoak oso egitura sakona sortu duela beren buruengan. Horregatik, garrantzitsua da emakumea eragin horretatik askatzea. Bere eginkizunak lehen planora pasatzen direnean, ikusten dugu nolako eragina duen gizartean.

Nola antolatzen zarete askapen hori lortzeko? Hezkuntza oso garrantzitsua da. Aztertu, borrokatu eta bizi den mugimendua gara. Beste era batera esanda, teoria eta praktika lotzen ahalegintzen gara. Horren truke prezio bat ordaindu behar badugu, ordainduko dugu. Baina auto-antolaketari garrantzi handia ematen diogu. Emakumeak antolatu, beren erabakiak hartu, planak egin eta ekintzak gauzatzen di-



teko mailarik baxuenean kokatzen dituen. Adibidez, Tunisiako parlamentuan sartzen den emakume batek indarkeria fisikoa jasan dezake ganberan. Iranen ikusi dugu emakumeak hil ditzaketela burua hijabagaz estaltzen ez dutelako. Milaka emakume sarraskitu ditzakete kaleetara irteteagatik. Mendebaldean, aldiz, norbanakoen askatasunak nabarmentzen dira eta emakumea bere esentziatik urrun eta isolatuta dago. Emakumeen arteko kompetentzia dago, bizitzeko era gizonezkoaren arabera zehazten da, eta gizonezko indartsua hartzen da erreferente gisa. Emakumeen aurkako indarkeria oso sotila dago.

Emakumea, isolatuta dagoenez, ez da gai bizi dituen arazoei zentzua aurkitzeko, horiek indibidualizatu ere egiten ditu eta konponbide errazetara jotzen du, arazo horiek zailtzen jarri gabe. Maskulinitatearen gainean eraikitako sistemek isolamendu politika bat garatu dute, bizi dituzten krisiak estaltzeko. Modu horretan, emakumeak bakarrik, desantolatuta eta zaituta daude, beti elkarren artean lehiatuz eta bizitzatik oso urrun. Hala, Ekialde Hurbilean emakumeen askatasunarengatik borrokatzen dugu, baita gizartearen askapenaren alde ere; Europan, berriz, indibidualismoaren borrokara kondenatuta dauden gizarteak daude.

Ekialde Ertaineko testuinguruan, zein antzekotasun dituzue palestinar emakumeak? Eta ezberdintasunak? Berdintasunen aldetik, gizonen pentsamoldea ordezkatzeko duten nazioek okupatutako lurraldeetan bizi-rauten dugun herriak gara. Halaber, emakumeen gizarte ekologiko eta liberal demokratikoak batzen gaitu, mundu osoko emakumeen borroketatik ikasgaiak ateratzeko, eta baita emakumearen zientzia den «Jineologia» ulertzeko ere. Aitzitik, emakume kurduak okupaziopean bizi dira lau estatu desberdinetan, eta gaur egun genozidio bati aurre egin behar izaten diote: kulturala, erlijiosoa, linguistikoa eta fisikoa. Halaber, egunero bonbardatzen dituzte ezer esaten ez duen munduaren begien aurrean Herri hori borroka odoltsua egiten ari da Siria, Irak, Iran eta Turkia bezalako estatuen eta gizonezkoen pentsamoldearen aurka. Emakumearen askapenean oinarritutako sistema ekologiko eta demokratikoa eraiki nahi duen herria gara, mugarik gabeko mundua, baina desberdintasun guztiak aitor-tuak izango dituen. Palestina, bere aldetik, Israelen okupazioaren aurka borrokatzen ari da. Nazio Batuetan onartua dago, eta emakumeek pentsamolde matxistaren aurka borrokatzen dute. Hala ere, oraindino badute estatu-nazio bat izateko eskaria. ◀

Abian kulturagunean hitzaldia eman zuen Özlem Tanrikuluk, urriaren 19an. AROA SOTELO VELASCO

tuzte. Antolaketaren funtsezko printzipioetako bat autodefentsa da. Emakumeen autodefentsa eta borondatea eredugarriak dira okupazio-indarren aurrean. Beharbada, beste emakumeen mugimenduak alderatuta, horrek ezberdintzen gaitu: edozein indarkeria motaren aurkako autodefentsa egiten dugu. Ez da armak altxatzea bakarrik, esaten den bezala. Indarkeriatik babestea, zentzu orotan borondatea izatea eta modu antolatuan jardutea da autodefentsarik handiena.

Palestina
«Gizonen pentsamoldea ordezkatzeko duten nazioek okupatutako lurraldeetan irauten dugun herriak gara Palestina eta Kurdistan»

Zer desberdintasun aurkitzen dituzu Mendebaldeko eta Ekialde Ertaineko emakumeek bizi dituzten zapalkuntzen artean? Erlijioak sinesmen soziala izateari utzi eta Islam politikoaren izaera hartu zuenean, ondorio negatiboak izan zituen gizartearen. Hala, emakumeen borondatea aintzat hartzen ez duen ikuspegia garatu da, haiek mespretxatzen dituen, mugak jartzen dizkiena eta gizar-

Azaroa-abendua

Barrika

Azaroak 24, barikua

Zine-forum feminista

18:00 | Emakumeen hitza lokalean
Udal Kultur Gunea.

Azaroak 30, eguena

Ander Deuna Eguna

11:00 | Goierrin

Meza, Aita Gotzon abesbatza, luntx herrikoia eta *De Barrika a La Habana* liburuaren aurkezpena.

Abenduak 3, domeka

Kantu kolore

18:00 | Udaletzeko plazan

Umeentzako proposamen didaktikoa.

Berango

Azaroak 12, domeka

Kontzertua: Otxandategi

Abestaldea

12:00 | Berango Antzokian

Berangoko taldeak bere errepertorioa eskainiko du.

Azaroak 12, domeka

Magia: Tor eta Txorroborro

18:00 | Berango Antzokian

Magia-ikuskitzuna familia guztientzat.

Azaroak 26, domeka

Antzerkia: Kuku. Ezkutuan dauden emakumeak

18:00 | Berango Antzokian

Emakume argazkilari baten irudiak kutxa batzuetan agertu dira. Zazpi urtetik gorako umeentzako antzerkia.

Erandio

Azaroak 17, barikua

Txotxongioloak: Buelbaka

18:30 | Merkatu zaharrean

Aldaketak onuragarriak eta saihestezinak dira.

Azaroak 18 eta 19

Santa Zezilia

Altzagako kiroldegian

Udalerriko hainbat musika- eta dantza-taldek erakustaldiak egingo dituzte aste-akabu horretan.

Azaroak 18 eta 19

III. Track 1 Fest

12:00 | Merkatu zaharrean

Track 1 elkarteak bere jaialdiaren hirugarren edizioa antolatuko du herriko musika taldeakaz.

Getxo

Azaroak 10, barikua

Bertso-saio tematikoa

20:00 | Azebarri kurgunean

Jon Maia eta Oihana Bartra bertsolariakaz, ALBEren zirkuak magia eta umorez beteko du Azebarri.

Azaroak 12, domeka

Dantza: Shine

19:00 | Muxikebarri Antzokian

Benetako bidaia emozionala izan gura duen Judith Argomaniz zuzendari eta koreografoaren obra.

Azaroak 17, barikua

Kontzertua: Benetan Zoro

21:00 | Muxikebarri Antzokian

Sorotan Bele talde mitikoaren bertsioak.

Azaroak 18, zapatua

Euskal Herriko Beatbox Txapelketa 2023

21:00 | Muxikebarri Antzokian

Beatboxer ospetsuenek euren erritmorik onenak erakutsiko dituzte, mundu osotik etorritako epaimahaiaren aurrean.

Gorliz

Azaroak 12 eta 26

Ibilbide zirkularrak Gorliztik

09:00 | Ibarreta plazan

Azaroak 18, zapatua

Dantza-ikuskitzuna eta Olaia Inziarteren kontzertua

19:00 | Ibarreta plazan

Pole Dance ikuskizun harrigarria eskainiko dute Kulturaldia 2023ko jardueren barruan.

Azaroak 19, domeka

Kale-animazioa eta Afrika Bibang musikaria

11:30 | Ibarreta plazan

Kulturaldia 2023ko jarduera.

Leioa

Azaroak 17, barikua

Pop Rock, Bizkaiko Ingeniarrien abesbatzaren kontzertua

20:30 | Kultur Leioan

Abesbatzetako eta pop-rock musikak elkartuko dituzte kontzertu ez oso ohikoan.

Azaroak 19, domeka

Antzerkia: Arrainak Bihotzean

18:00 | Kultur Leioan

Martik ez daki non bizi diren beldurrak, hortaz lasai bizi da kresal usaina duen herri polit batean.

Lemoiz

Azaroak 18, zapatua

Kalejira mitologikoa

18:00 | Armintzan

Kulturaldia 2023ko jarduera.

Plentzia

Azaroak 11, zapatua

Kontzertuak: Eire eta J. Martina

21:00 | Ontziola plazan

Kulturaldia 2023ko jarduera.

Azaroak 15, eguaztena

Hitzaldia: Itsas biodibertsitatea: Trec espedizioak bisitatu gaitu

19:00 | Goñi Portalen

Ibon Cancio PIEko ikerlariaren eskutik.

Sopela

Azaroak 18, zapatua

Musikaren Eguna

20:00 | Frontoian

Sopelako Kuadrillak taldeak egun osoko egitaraua prestatu du herriko musika-taldeak bultzatzeko.

Abenduak 1, barikua

Bertso-saioa

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Ane Labaka, Sustrai Colina, Nerea Ibarzabal eta Imanol Uria bertsolariak igoko dira taula gainera.

Abenduak 2, zapatua

Kontzertua eta dantza-ikuskitzuna

20:00 | Frontoian

Xabi Aburruzagak kontzertua eskainiko du, eta, ostean, Meñakoz taldeko dantzarien txanda izango da.

Urduliz

Azaroak 25, zapatua

Dantza-ikuskitzuna eta X Sakararen kontzertua

19:00 | Antsonekoa plazan

Pole Dance ikuskizuna eskainiko dute Kulturaldia 2023ko jardueren barruan.

Azaroak 26, domeka

Kale-animazioa eta Sonakay

12:00 | Antsonekoa plazan

Kulturaldia 2023ko jarduera.



MEDIKU - TALDEA

RAQUEL LAMBEA dk.
Zain barneko laserrean 13 urtetik
gorako esperientzia duen medikua

RICARDO RINCÓN dk.
Kirurgialaria

RICARDO ITUARTE dk.
Erradiologo interbentzionista

IÑAKI MARTIN dk.
Erradiologo interbentzionista

P.S.E. 92/21

Zain barneko laserra: desagerrarazi zure barizeak berme guztiekin Dermitek-en

Tratatutako barizeen % 99,6 ez dira berriz ateratzen: horiek dira Dermitek klinikak lortutako emaitzak barizeak zain barneko laserrarekin tratatzean. Hori dela eta, Dermitek-ek berme bat eskaintzen du: urtebeteren buruan barize bera ateratzen bazaizu, tratamendua errepikatuko dizu, doan.

Dermitek klinikak 2010. urteaz gozotik tratatzen ditu barize lodiak zain barneko laserrarekin. Tratamendu hori saio bakar batean egiten da, eta ordubete inguru irauten du. Bukatzean, pazientea barizerik gabe oinez irteten da Dermitek-etik, eta bulto antiestetikorik edo sintomarik gabe.

Zain barneko laserra da nazioarte-mailan sarrien hautatzen den tratamendua (Gold Standard). Horrek esan nahi du AEBetako eta Europako zientzia-erakunde nagusiek beste batzuen aurretik gomendatzen dutela hori, hala nola safenektomia (kirurgia tradizionala), N Butil zianoakrilatoa (itsasgarria) edo esklerosia aparrekin.

Hauk dira lehenetsun horren arrazoiak: zain barneko laserrak barizeak berriro ateratzeko tasa txikiagoa du; arrisku gutxia-

go dakartza, ebaketa behar ez duelako eta anestesia lokalarekin egiten delako; eragozpen gutxiago eragiten ditu tratamenduaren ostean; eta pazienteak berehala itzul daitezke bere ohiko bizitzara

ZEINTZUK AUKERA DAUDE? Zain barneko laserraz gain, klinikak beste tratamendu hauek ere eskaintzen ditu: N Butil zianoakrilatoa (itsasgarri gisa ezagutzen dena) edo ekografia bidez gidatutako esklerosia aparrekin. Denak ez dira berdinak eta beharrak ere desberdinak izan daitezke.

Iraganean, kirurgia tradizionala jaso duten pazienteen kasuan edo laserrarekin tratatu ezin diren oso zain bihurriak dituzten kasuan, ekografia bidez gidatutako aparra erabiltzen duen tratamendua da aukerarik egokiena.

N Butil zianoakrilatoa aukera egokia da pertsona gazteentzat, barize gutxi dituztenentzat edo orratzei beldurra dietenentzat. Tratamendu honek hainbat azterlanen bermea jaso du eta emaitza onak eman ditu bost urtera, baina oraindik ez da lehentasunezko tratamendutzat jotzen.

Zergatik aukeratu zain barneko laserra?



1. Azkarra: ordubeteko saio batean bakarrik, kirurgiarik gabe eta anestesia lokalarekin.



2. Eraginkorra: birgaixotze-tasa % 0,4koa da tratamendua egin eta urtebete igarota. Hala ere, ebakuntza-gelan ebakitako barizeen % 20k eta aparrekin tratatutakoen % 40k arazoak sortzen dituzte bi urte geroago.



3. Zehatza: laserrak energia zehatza ematen du zaina beroaren bidez zigilatzeke, zuntza biltzeko sistema automatiko baten bidez.



4. Segurua: ISO 9001:2015 arauarekin ziurtatua, posible diren konplikazioak edo albo-ondorioak minimizatzeko prebentzio-eta segurtasun-neurriak ebaluatzen dituena.



5. Erosoa: bizitza normalari berehala ekiteko aukera ematen du.

INFORMAZIO
GEHIAGO BEHAR
IZANEZ GERO
QR KODE HAU
ESKANEATU



dermitek by Grupostop

Uribitarte pasealekua 11-12. 48001 BILBO

(Zubizuri zubiaren ondoan; Moyuako metro-geltokitik eta Uribitarteko tranbia-geltokitik hurbil)

Telefonoa: 944 010 110

Astelehenetik barikura: 8:30-20:00
Zapatuetan: 9:00-15:00

Lehen/Orain **Gorlizko Elizako plaza**



ITURRIA: INDALECIO OJANGUREN



Uribitakora



TESTUA
Iñigo Kortazar
Elias

DOINUA
Azken arnasa
eman nahi nuke /
Itsasoari begira

ARGAZKIA
Iker Torre
Navarro

Herria lokotx-bilketan

*Herri xumea izan dadila
herri-kirolen zimendu.
Erretratuan lokotx artean
herria zaigu ostendu.
Lokotx-bilketan ibiltzen dira
kendu-jarri, jarri-kendu.
Gure kontutan berdin antzera
ez al gara ibiltzen gu?
Argazki honek eskualdeko
metafora ematen du.*

*Diferentea ahazten dugu,
ikusiz gero, baztertu.
HAPOak gure lur emankorrek
aldika ditu lehotu.
Oraindik ere gure hizkuntza
batzuek ezin ulertu.
Holako mila kontu dauzkagu
jasa ezin da atertu.
Baina lokotx lez egiten dira
agertu ta desagertu.*

*Herri-kirolaz gozatzen dugu
plazara irtendakoan.
Batzuek dema edo apustu,
joko zein azpijokoan.
Gure herriko aferak ere
lokotxak direlakoan:
kirolariak sentitzen al du
lokotxa hartzerakoan,
herria eta jendartearen
bizitza dela jokoan?*

ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

Bayou La Batre



TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO
ARGAZKIA: BAYOU LA BATRE ▶

Gasteizko hardcorearen eszenatik datorren talde honek abesti arin eta instrumentalki landuagoetara egin du salto, eta azaroaren 4an, Getxoko Kabia gune autogestionatuan, gogor astinduko gaitu. Zuekin, Bayou La Batre.

Nortzuk zarete Bayou La Batre? Azaldu egizue labur zeuen historia... Bayou la Batre Gasteizko No Regret hardcore-taldeko errautsetatik jaio zela esan daiteke. Aurreko taldea utzi eta gero, hiru taldekide (Javi, Markel eta Iñigo) Jaimerekin elkartu ginen soinu berri bat jorratzeko asmoz. Hasiera batean, ez geneukan batere argi zer egin nahi genuen, zer estilo mota landu ezta zer talde mota sortu ere, soilik zarataren aldetik joko genuela. Pixkanaka-pixkanaka gaur egun garen taldea definituz goaz, betiere ikasten eta muga berriak gainditzen.

Nondik dator izen berezi hori? Izena aukeratzea inoiz ez da lan erraza izan, gure kasuan behintzat. Haimaka izen jarri genituen mahaiaren gainean, baina ez ginen akordio batera iritsi. Alde horretatik, aurkeztu beharra dizuegu oholtza gainean ikusten ez den baino bosgarren taldekide sentitzen dugun Asier. Bera izan da, hain zuzen ere, *Argilun* lanaren letrak idatzi dituen laguna eta, aldi berean, taldeari izena jarri diona! Bayou La



Azaroaren 4an Algortan izango dira

«Ezin izan dugu kontzertu askorik eman eta nahi genukeen baina askoz gutxiago mugitu gara, batez ere osasun kontuengatik. Hala ere, denbora hori abesti berriak sortzeko baliatu dugu. Gure ideia da lehenbailehen LP berri bat ateratzea»

Batre (Alabama, AEB) Forest Gumpeko Bubbarren jaioterria da. Adjudicado!

Oso metal/hardcore landua egiten duzue, eta soinuari garrantzi handia ematen diozuela nabaria da, nondik datorkizue hori? Gustuko duguna egiten dugulako. Guretzako soinua oso garrantzitsua da eta arreta handia jartzen diogu. Ez dakit nondik datorren, hasieratik egin dugun gauza da. Estiloaren aldetik, bakoitzak influentzia ezberdinak dakartza eta gero denon artean zentzua ematen diogu. Erreferentzia asko ditugu: Norma Jean, Every Time I Die, Refused, Kuraia...

Kontzertuetan zuzeneko azkar eta indartsua duzue, eta iraupena oso laburra izaten da. Zer dela eta jokaera hori? Oholtzan potentzia eta intentsitatea gure identitateak dira. Oraintxe bertan abesti gutxi ditugunez, kontzertua nahiko motza da. Hala ere, gaur egungo hardcore eszenan kontzertu motzak egiten dira. Abesti gehiago izanda ere, seguru asko ez genuke kontzertua askoz gehiago luzatuko.

Gasteiztarrak izanda, nondik etorri zaizkizue holako influentziak eta zelan ikusten duzue Gasteizko hardcore/metal eszena? Euskal Herriko eszena oso indartsua izan da eta hala izaten jarraitzen du. Gertuko influentzia handia daukagula esan daiteke; are gehiago, zuzenekoak ematerako orduan influentzia gehienak talde txikiak dira, undergroundeko taldeak. ◀

Ohitura zaharrak

ARITZA BERGARA Idazlea



Halloween, Arimen Gaua edo Gau Beltza?

Urriaren amaieran, asko dira gure lurraldean inportatutako jaiegun bat ospatzeko prestatu diren haurrak, azken urteotan indarra hartu duen festa.

Halloween da, hildako bizidunen gaua. Ameriketako Estatu Batuetatik iritsita, festa hau gure gazteen artean txertatu da, arrakasta geldiezinarekin. Mozorroak, gozokiak, heriotzaren misterioa, mamuak, zonbiak... Konbinazio erakargarria, nola lehiatu horrekin? Zaila dirudi, ezta? Baina kontutan hartu behar dugu gauza bat: orain ikuspegi erabat komertzialarekin datorrigun festa hau duela hamarkada batzuk abiatu zen kontinente zaharretik Ipar Amerikako gizartearen kokatzeko. Beraz, gurea izandako festaren bueltaren aurrean gaudela esan dezakegu. Halloween Europatik, Irlandatik, Ameriketako Estatu Batuetara pasatu zen. Baina hori ez da bere jatorria, jaiegun zelta bat zen. Halloween hitza *All Hallow Eve* (Santu Guztien Bezpera) esapidetik dator eta bere jatorria tradizio kristau honekin oso lotuta dago, baina baita uztaren amaiera eta hildako senideen oroitzapena ospatzen zuten sinesmen zelta eta erromatarrekin ere.

Baina, nola ospatzen zen Euskal Herrian? Kalabazak eta arbiak, garaiko produktu tipikoak, hustu eta ilunpetan pizten ziren kandelak sartzen zituzten, pertsonak izutzeko, baina baita urte horretan hil ziren hildakoen arimetarako bidea argitzeko ere, gure munduaren eta espirituaren arteko joan-etorria errazteko. Data honetan, mozorroak erabili ohi dira ere, oihal zaharrez eginak, gizakiak izutzen saiatuz. Euskal herritarrentzat lege naturalek ez zuten indarririk urteko une jakin batzuetan. Solstizioak, ekinozioak eta, Lurraren eta Eguzkiaren arteko harremanean bezala, magia ere nagusi zen arimaren gauean, gau beltzean. Goza dezagun bere misterioaz! ◀

TopoBarrika Tokiko toponimiaren azterlana

«Barrikako bazter guztien izenak batu nahi genituen»

Bederatzi urteko ikerketa baten ostean, Barrikako 958 toponimo batzen dituen azterketa-lana aurkeztu du udalerriko auzokideen Gertuko elkarteak bultzatutako TopoBarrika taldeak. Elkarrizketa osoa, hiruka.eus-en.



Jesus Arzubiaga da lau lagunez osatutako taldeko kideetako bat. IKER TORRE NAVARRO

IKER RINCON MORENO ▶

Bederatzi urteko ikerketa baten ostean, tokiko 958 leku-izen batzen dituen azterketa-lana aurkeztu zuten urriaren 13an Barrikan. Gertuko auzokideen elkarteak lau kideez osatutako TopoBarrika boluntariotaldeak egin du lan hori eta, azaldu dutenez, horri esker, udalerrian dauden toponimoak eta kokapenak ezagutzea ahalbidetuko dute, hain zuzen, herri baten kultura-ondarea mantentzeko. Nabarmendu dutenez, ildo horretan Barrikan egindako azterketa lanik sakonena da hau.

Jesus Arzubiaga da lantaldeko kideetako bat eta, gogoratzen duenez, 2014an ekin zioten beharrari, udalerriko leku-izenen kokapenean nahasmendua zegoelako eta toponimo asko galzorian zeudelakoan. «Askotan gertatzen zen, pertsona bati galdetuta non dagoen leku ja-

kin bat, horrek hori inguru batean kokatzen zuela, eta beste bati galdetuta, aldiz beste batean», gogoratu du Arzubiagak. Hala, zereginean murgilduta, trebatzeko, Euskaltzaindiko Onomastika Saileko adituak aholkularitza jaso zuten, eta behin jakinda nondik jo, 2019an, informazioa batzeari ekin zioten. «Elkarrizketa asko egin ditugu, eta dokumentu zahar asko arakatu baita ere», azaldu du barrikoztarrak. Horri esker, 958 toponimo bildu dituzte, liburu batean jaso dituztenak, baina baita webgune batean ere. Azken horretan, gainera, beste auzokideen parte hartzea bultzatu gura dute, leku-izenen zerrenda handitzeko edota akatsak zuzentzeko ere, «zerbait bizia da».

Baina, zer batu dute? Alde bateatik, Euskaltzaindiaren arabera izen aratuak, horien aldaera guztiak, esanahiak, kokapen zehatzak eta argazkiak, besteak beste. ◀

Igone Arteagabeitia Uribe Kostako emakumeen abesbatza

«Belaunaldi ezberdinetako emakumeak bildu nahi ditut abesbatza batean»

Urte luzez hainbat abesbatzatarik partaide eta zuzendari izan ostean, Igone Arteagabeitiak erronka berri bati heldu dio: Uribe Kostako emakumeen abesbatza bat sortzea hurrengo asteetan.

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Nondik datorkizu Uribe Kostako emakumeen abesbatza bat sortzeko ideia? Gaztetatik ko-roaren munduarekin oso lotuta egon naiz. Euskal Herriko Unibertsitateko abesbatzaren sorreran egon nintzen, eta bertan ibili nintzen urte asko zuzendariorde bezala. Beranduago, koroko kide ohi batzuekin batera Iubilo Bilbao Abesbatza sortu genuen, eta horretan egon naiz 11 urtez, 2023ko maiatzera arte. Hainbeste urte kantuaekin lotuta egon eta gero, hutsune bat sentitu nuen, eta horregatik proiektu berri bat sortu nahi nuela erabaki nuen: Uribe Kostako emakumeen abesbatza bat.

Nolakoa da egungo egoera abesbatzei dagokionez? Egoera nahiko makala da. Herri guztietan abesbatza asko daude, baina partaideen adin-tartea oso altua da. Gazteak dauden abesbatzetan maila oso altua da; ikasketa maila altuko lagunek osatzen dituzte. Hortaz, abesbatza «arrutetan» edo maila-erdiko taldeetan ez dago gazterik eta, ondorioz, ez dago erreleborik. Horiek desagertzeko arriskua dago. Bestalde, Uribe Kostako abesbatzen egoera aztertu eta konturatu nintzen Getxon izan ezik, beste



Euskal Herriko Unibertsitateko abesbatza sortu zuen Arteagabeitiak. IKER TORRE NAVARRO

Euskarazko abestiak

«Abesti euskaldunak lehentasuna izango dira, baina denetarik abestea da ideia. Edozein herrialdetan musika adibide ederrak daude eta horiek jasotzea ondo legoke: gaztelaniaz, latinez, ingelesez...»

herrietan ez dagoela emakumeen abesbatzarik. Era berean, gizon gutxi gelditzen dira abesbatzaren munduan. Horregatik, Uribe Kostan emakumeentzako abesbatza bat egitea berezia izango zela pentsatu nuen.

Nori dago zuzenduta? Niri gustatuko litzaidake belaunaldi ezberdinetako emakumeak bildzea, aberasgarriagoa izango dela uste dudalako. Bestetik, ideala litzateke musika irakurtzen jakitea. Hala ere, ez jakitekotan, entonatzeko jakitea taldean izena emateko baldintza bat da. Interesa dutenek 630 568 757 telefonora dei dezakete edo solikurra@gmail.com helbidera korreo bat bidali. Proiektua aurrera badoa, kulturarentzako aberatsa izango delakoan nago. ◀

JUAN MARI

Harategia Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxez etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

GETXO EUSKALDUNTZEKO HITZARMENA

9EHITU
KIROLA

EUSKARA

KIROLA

AZAROAK 22

Getxoko kirol klubak, euskaraz Faduran

Zaintzen negoziari ez!

NAHIA FERNANDEZ ELAko Genero Politikako kidea



Menpekotasun egoeran dauden pertsonentzako zerbitzu ia guztia azpikontratatuta dago. Hego Euskal Herrian egoitzen % 12a soilik da kudeaketa publikokoa, eta administrazioa da horren erantzule zuzena. ELAtik urteak daramatzagu salatzen lizitazioak beheranzko enkantea direla, non eskaintza merkeenak zerbitzua hartzen duen. Ez da kasualitatea Sacyr moduko eraikuntza enpresa batek Bilboko Etxez Etxeko laguntza esleituta izatea.

Errealitate gordin honen aurrean, zaintza arloko enplegu-sektoreetan greba ugari egin dira urteotan, eta lorpenak esanguratsuak izan dira. Bizkaiko erresidentzietan, 68 greba egunen ondoren gerokultoreen soldata 1.460 eurotik 1.800era igotzea lortu dugu berriki. Gatazka sindikal horietako aldarrikapen asko lan esparrutik harago doaz, hala nola ratioak hobetzea edota egoiliarrei eskaintzen zaien arreta denbora handitzea. Bizitza eta negoziaren arteko talka zuzenean seinalatzen dute borroka hauek.

A30ean urteetako gatazka sindikal eta feministen testigua hartu eta zaintzen negozioa ozen salatuko dugu. Ezin dugu gure eta geure inguruko ongizatea enpresa pribatuen menpe utzi. A30ean denok kalera!

2023ko azaroa

IRAIDE JUARISTI LAB eskumaldea



Zaintzaren gaia bolo-bolo dabil azken astetan. Notizia ona da eta mugimendu feministari esker da. Denok busti gaitu eztabaida honek. Hasi gara irudikatzen zelan izan nahi dugun zahartzaroan zainduak, ea nork zaintzea eta nor zaindu nahi dugun, zer jangela eredu behar dugun gure seme-alabentzat, zer osasun sistema behar dugun...

Zaintzarako eskubide kolektibo unibertsalaz eta zaintza sistema publiko komunitarioaz hitz egin dugu, eta biak elkar lotuta doazen kontuak izan behar direla ulertzen dut. Niri langileon ikuspegia txertatzea dagokit. Bakoitzaren eta komunitatearen zaintzarako eskubidea ezin da inoren bizkar erori, ezin da langileon lan eta bizi baldintzen kontura bermatu. Horregatik, garrantzitsua deritzot bi aldarrikapenak eskutik lotuta ulertzea. Zaintzarako eskubidea modu kolektibo batean garatu behar da eta sare publikoaren aldeko borrokarekin eta langileen eskubideen errekonozimendurekin batera joan behar da. Sare publikoa sarbidez eta kudeaketaz izan behar da publiko, langileon eta erabiltzaileen eskubideak defendatzeko. Ez dago feminismoari klase borrokarik gabe eta ez dago klase borrokarik feminismoari gabe. Langileok ere, azaroak 30ean grebara!



HARIA

2023ko Getxoko Euskara Saria, Getxoko eta inguruko gazteen artean aisialdia euskaraz sustatzeagatik.

Etorri eta eskaini zure babesa euskararen alde lan egiten duten gazte hauei! **MEREZI DUTE!**

LEKUA Muxikebarri
(Arrigunaga Aretoa)

EGUNA Azaroak 7

ORDUA 20.00

Etortzeko asmoa baduzu, deitu **944 660 010** telefonora edo idatzi hona: euskara@getxo.eus



Gora Goiri!

Madrilen jaio zen 1873ko abuztuaren 29an Goya kaleko 14. zenbakian. Haren amak ezkongabea zela ekarri zuen bera mundura. Baita haren amonak haren ama ere. Aitaren abizenik ezean, amaren eta amamaren abizenak egokitu zitzaizkion gaurko gure protagonistari: Maria Amalia Vicenta Goiri Goiri dugu bera, Amalia Goiriren alaba eta Juana Vicenta Goiriren biloba.

Madrilen jaio arren, Mariak Algortan eman zituen bere haurtzaroko lehen urteak. Haren ama Amaliak etxean hazi zuen bere alaba, honek 12 urte bete arte. Gero Madrilgo Emakumearen Irakaskuntzarako Elkartean matrikulatu zuen, eta laster egin zen gure Maria merkataritzako, etxe-magisteritzako eta hizkuntzetako tituluen jabe (**geroagogarrenean** irakasle ibiliko zen elkarte **berartan**). Batxilergoa ere atera zuen Mariak bere kabuz, urte bakarrean eta bikain kalifikazioa **jadetsita** ikasgai gehienetan. 1896an Filosofia eta Letretan lizentziatu zen (Espainiako Estatuan lizentziatu zen bigarren emakumea izan zen), eta 1909an **doktoretu** (honetan lehena), ordurako ama zela.

1900ean Ramón Menéndez Pidal hizkuntzalariarekin ezkondu zen eta ezkon bidaian Gaztelan zehar ibili ziren biak, ahoz kontatzen ziren erromantzeak herririk herri biltzen. Hiru seme-alaba izan zituzten: Jimena, Ramón eta Gonzalo. Mariak bere bizitza luzean hainbat artikulu idatzi zuen, hainbat berbaldi eman eta hainbat ikerketa burutu, gehienbat hezkuntzaz, literaturaz eta feminismoaz. Ospe handia lortu zuen **alorrotan**, baita nazioarte mailan ere. 1954ko azaroaren 27an Madrilen itxi zituen begiak betiko, 81 urte zituela. Baina alferrik bilatuko duzue haren **hilarria** nonbait, hilarri barik lurperatua izateko eskaria egin baitzuen hil aurretik.

Haren oroigarri, Getxoko kale bati ez ezik, Espainiako hainbat kaleri eman diote haren izena (Alacanten, Kordoban, Guadalajaran...). Baita EHUKo Zientzia Parkeko Animalien Bioteknologiako Zentroari ere. Horrez gain, EHUK berak Maria Goyri saria sortu du, master amaierako lanetan genero ikuspegia txertatzen duten lanak sustatzeko.

Erremate polita litzateke Getxoko Udalak beka bat ateratzea, udalerriko antzinako ahozko literatura bildu (kontakizunak, ipuinak, kantak, bertsoak...) eta genero ikuspegitik aztertzeo, **andrazkoek** rol garrantzitsua jokatu baitute ahozko euskal literaturaren transmisioan. Hilarri immaterial polita litzateke Maria Goiriren oroimena guztiongan **iltzatu** eta **hilezkortzeko**. ◀

Berba azoka

Geroagogarrenean

Handik denbora batera, denbora bitarte dela.

Berartan

Hartan bertan. Hirugarren graduako erakusle berrindartua: beronetan, berorretan eta berrartan.

Jadetsi

Lortu, erdietsi.

Doktoretu

Doktoregoa, doktoretza edo doktorearen gradu akademikoa lortu.

Alor

Nekazaritzatik datorkigun berba. Hemen, jakintzagaia, irakasgaia, ikasgaia.

Hilarri

Hilobia estaltzen edo ixten duen harria; hilobi gainean eraikitzen den oroitarrria.

Andrazko

Emakumea, emakumezkoa.

Iltzatu

Iltzez josi; hemen, finkatu.

Hilezkortu

Hilezkor bihurtu, betikotu.



Algorta Bote Luzea Taldea Euskal Herriko Txapelketako irabazleak

«Pilotaren joko zaharrena da, tenisaren aitzindaria»

Bote luzearen pilota-jokoan murgilduguran, taldea sortu zuen joan den udan Algortako kuadrilletako hainbat lagunek. Biotz Alai plazan entrenatzen dute eta, oraintsu, Euskal Herriko txapela irabazi dute.

IKER RINCON MORENO ►

Joan den urriaren 21ean, zapatuan, jokatu zuten Bizkaiko talde biek Euskal Herriko Bote Luzea Txapelketako finala, Algortako Biotz Alai plazan. Algortarrek (Bizkaia 1) Bizkaia 2 taldea mendean hartu zuten norgehiagokaren azkenengo partidurorretan, 7-5 emaitza lortuta. Hala, txapela eskuratu, Europa mailan egingo den txapelketa jokatzeke sailkatu da Algortako taldea. Pilota-joko honen berezitasunak ezagutzeko, horren nondik norakoak azaldu dizkigute.

Hasteko, zer da bote luzea? Eskupilotako modalitate bat da, dakigunez pilota jokoaren modalitate zaharrena, tenisaren aitzindaria, Europa mailan XVI, XVII eta XVIII. mendeetatik gaur egun arte jokatu dena, hala nola Italian, Frantzia, Belgikan, Herbeheretan eta Valentzian. Joko zuzenean jokatzen da, hau da, hormaren kontra jokatu barik; 45-60 metroko luzera eta 13-17 metroko zabalera duen kanxatan aritu behar da. Bi taldek elkarren aurka jokatzen dute, bost bosten kontra.

Nondik dator pilota joko hori Algortara ekartzearen ideia? Algortako kuadrilla ezberdinetako lagunek eskupilotaz gozatzeko talde bat sortu genuen, pasio hori partekatzeko. Geroztik, garagardo eta txantxa artean sortu zen modalitate hori jokatzearen ideia. Hala, gure artean antolatu eta gero, kanpoko diru-laguntza lortu, baimenak Udalarekin kudeatu eta ideia hori egikaritu ahal izan genuen Euskal Herriko Txapelketan lehiatu ahal izateko, askok euskal pilotan federatuta gaude eta.

Euskal Herriko Txapelketan lehiatzeari ekin diozue, baita irabazi ere; zenbat taldek parte hartu dute horretan? Euskal Herri mailan



Algortako Bizkaia 1 taldeko kideak, txapela jantzita. © ALGORTA BOTE LUZEA

Bote luzerako zelaia, non?

«Berez, dimentsioak errespetatzen badira edozein lautada, plaza, frontoi edota landan jokatu ahal da. Euskal Herriko beste herrietan jakin dugunez, belarrezko zelaietan jokatu izan da, adibidez. Beraz, gauza da eremua edo dimentsioak errespetatzea. Algortan, Biotz Alai plazak badauka tarte, eta dagoen lekuan egonda, jendeak hurbildu, animatu, giroa sortu eta kirola ezagutzeko aproposena zela pentsatu genuen. Entrenamenduak ere bertan egiten ditugu. Arraroa egin zitzaigun hasieran, baina ohitura hori mantentzen badugu gure Bombonera bilakatuko dugu danontzako!»

zortzi taldek jokatu dute aurten. Lau taldeko bi multzoko ligaxka fasea eta, ondoren, finalurrekoak eta finala jokatzen dira. Bizkaitik bi talde daude, Gipuzkoatik beste bi eta Iparraldeko lau.

Eta zenbat kidek osatzen duzue Algortako taldea? Berez 14 lagun gara taldean, horietatik 10 pilotari eta beste lau staff gisa; logistika, epaile, harreman publiko eta sukaldaritza arloan jarduten dute horiek, oso garrantzitsuak dena ondo ateratzeko eta partiduen ondorengo «3. denboran» bi taldeek bapo-bapo bazkaltzeko. Hala ere, zazpi pilotari bakarrik aurkeztu ahal dira partiduetara, beraz, txandakatu behar gara denok jokatu dezagun. Beste pilotari batzuk ere laguntzen digute entrenamenduekin, 10 pilotari behar baitira partidu bat jokatzeke.

Non dauka arrakasta gehien bote luze jokoak? Ustez Ipar Euskal Herrian gehiago jokatzen da inguruotan baino, adierazgarria da Euskal Herriko Txapelketan Iparraldeko lau talde egin direla jokatzen. ◀

Skate Munduko Txapelketa Italian

Peio Gonzalez eta Gadea Moja, podiumera heltzeko zorian

Gonzalez sopoloztarrak oso emanaldi ona egin arren, ez zuen finalurrekoetarako pasea lortu; Moja getxoztarrak, berriz, 20. postuan amaitu zuen, eta ez zuen nahikoa izan finalerdietara sartzeko.

Urriko lehenengo aste-akabuan jokatu zuten Ostia-Erroman (Italia) Park modalitateko Skate Munduko Txapelketa. Horretan aritu ziren Basque Team taldeagaz Peio Gonzalez sopoloztarra eta Gadea Moja getxoztarra, baita Hegoa Zabalburu ere –getxoztarra hori ere–, baina azken honek ezin izan zuen sailkapen-fasea gainditu. Lehenengo biek, berriz, final-laurdenetara sar-

tzeko txartela eskuratu zuten. Sopoloztarrak emanaldi ona egin arren, ez zuen finalerdietarako pasea lortu; hala ere, heldutasuna erakutsi zuen txapelketan eta sailkapen orokorrean puntu oso baliotsuak pilatu zituen hurrengo mozketan pasatu eta Paris 2024ko Olinpiar Jokoetarako borrokan jarraitzeko. Mojak, berriz, 20. postuan amaitu zuen Italiako lehia, nahikoa ez podiumerako borrokan aurrera egiteko. ◀

Nazioarteko Miliak Berangon

Isaac Nader eta Salome Afonso, berriro ere irabazle Berangon

Iazko edizioan ere irabazle izan ziren Isaac Nader eta Salome Afonso atleta portugaldarrek jantzi dituzte 35. Nazioarteko Miliako txapelak, gizonezko eta emakumezkoen kategorietan, hurrenez hurren. Urriaren 7an izan zen lehia, zapatuan, eta gizonezkoen lasterketan, Naderrek ozta-ozta gailendu zuen Mohamed Attaoui azkeneko *sprintean*, 04:17ko denbora eginda, bigarrenari segundo eskasa aterata; hala, portugaldarrak hirugarrenez jarraian irabazi du lasterketa hau. Emakumezkoen kategorian, Afonsok iazko garaipena errepikatu zuen azkeneko momentuan eraso izugarria egin eta kronometroa 04:52 denboran gelditu ostein.

Berangoko Nazioarteko Miliak Espainiako Estatuko onenaren izendapena jaso du zazpi urtez jarraian, eta Estatuko zein nazioarteko atletarik onenen hitzordu garrantzitsu bilakatzea lortu du. ◀

UrIBE 2023 Azaroak 1-30 Noviembre

10. azaro gastronomia gastronomico

noviembre gastronomico

Menu bereziak | Bisitak | Ekitaldi gastronomikoak
Tailerrak | Dastaketak | Eta askoz gehiago
Menús especiales | Visitas | Eventos gastronómicos
Talleres | Degustaciones | Y mucho más...

www.uribe.eu

jataondo@jataondo.org

UribeTurismo

@Visit Uribe

visituribe

Uribe

JATA-ONDO

EUSKADI

BILBAO BIZKAIA

Bizkaia

EUSKADI BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Hirukira olgetan

© GARBINE UBEDA

SOLUZIOAK:



AURREKO SOLUZIOAK






Handienetik txikienera

Ordenatu jertse hauek handienetik txikienera.

Eman handienari 1 zenbakia, eta txikienari 9.



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



Mezu gordea

Eman marrazkitxo bakoitzari bere hizkia eta esaera zahar bat agertuko zaizu. Erabili alboko hizki-marrazki alfabetoa.

Sudokua

Zer diote gure lagunek? Hitz bana falta zaie, ezta? Begiratu bakoitzak ondoan duen taulari eta zoaz laukiz lauki, hizkiak batuz, geziek agintzen dizuten moduan. Bi kasuetan, nabarmenduta dagoen koadrotxo duzu abiapuntu. Jakin ezazu azaroari deitzeko moduz ari direla biak.

Margotu

Azaroa urteko hamaikagarren hilabetea da, kuien eta onddoen garaia. Goian idatzita dago, baina kolore apur bat merezi du, ezta? Bada, eman iezaiozu!



Aldea dago Aurki itzazu bi irudien arteko hamar aldeak.

Itzala Lotu hosto bakoitzari bere itzala.



Greba feminista orokorrean parte hartuko duzu?



SAIOA OLMO
ERANDIO

Gainetik bada ere, badakit zer den azaroaren 30eko greba orokorra, baina oraindino institutuan ez digute horren inguruko informazioz eman. Gehiago jakin dugu hezkuntza publikoaren aldeko manifestazioez. Hala ere, azaroaren 30ean, printzipioz, greba egiteko asmoa dut.



MERTXE BILBAO
ERANDIO

Erandion lau bilera egon dira eta ezin izan naiz batera ere joan. Nire alabarengatik jaso dut informazioa. Hala ere, egun horretan egingo diren mobilizazioetan parte hartuko dut, noski. Borroka feminista ezinbestekoa da. Nire bizitza osoan zehar zaintzak nire gain egon dira, eta bada garaia hori aldatzeko.



PILAR BILBAO
ERANDIO

Manifestazioetara joango naiz, baina egia da ez dudala informazio askorik jaso grebaren inguruan. Oraindino ere, generoen arteko ezberdintasunak daude, nahiz eta gauzak guretzako hobetu diren. Gu ere serio jartzen hasi gara hainbeste urtez zaintzen karga osoa aguntatu ostean.



IKER MURUAGA
ERANDIO

Orain grebaren zergatiak apur bat azaldu dizkidazula, uste dut parte hartuko dudala. Ez naiz inoiz joan manifestaldi feministetara, baina zaintzan oinarritutako greba orokorra denez, uste dut joango naitela. Gaur egun ere, gizarte osoak normaltzat hartzen du emakumeak soilik hartzea zaintzaren karga.



PILAR SAENZ
ERANDIO

Gure eskubideak defendatu behar ditugu, beraz, egun horretan mobilizazioetara batuko naiz. Hala ere, uste dut apurka-apurka gauzak aldatzen ari direla. Gainera, gaur egungo gazteria beste era batean hezten ari gara eta horrek bere eragina du gizartean. Neska gazteei etorkizun hobia uzten ari gaitzaizkie.



VICTOR ALONSO
ERANDIO

Urtero mugimendu feministek egiten dituzten mobilizazioetara joaten naiz, eta aurten ez da gutxiago izango. Uste dut garrantzitsua dela emakumeen eskubideak defenditzea, eta urtero egiten dut manifestazio hauen alde. Hala ere, egia da ez zaidala informazio askorik heldu oraindino.



GUILLERMO ARRIOLA
ERANDIO

Grebaz zerbait entzun dut, baina ez dut informazio askorik jaso. Orain zuk azaldutakoa entzun eta gero, joango naizela uste dut. Beti noa ahal dudan grebetara eta gustuko dut horrelako gauzez informatzea. Oso gai garrantzitsua iruditzen zait zaintzena eta, nolabait, gizarte osoari eragiten dio.



PILI SUAREZ
ERANDIO

Bai, noski! Denok jaso beharko ditugu zainketak gure bizitzako uneren batean, eta horiek ezin daitezke beti emakumezkoen gain jarri. Gainera, horretan dauden emakume gehienak etorkinak dira, beraien lana ikusezina da, eta greban ere ezin izango dute parte hartu; beraien ere ahotsa eman behar diegu.



«Giro eta historia asko duen hiria da»

ANDER ZARRAGA ▶


Bere bikotekideari Granadan lan-aukera bat atera zitzaienez, eta berak ere telelana egin dezakeenez, Unai Lopez algortarrak Andaluziako hiri horretara bizitzera joatea erabaki zuen aurreko otsailaren amaieran. Dioenez, oso gustuko duen leku bat da, lehendik ere ezagutzen baitzuen, bere bikoteak han ikasten zegoelako, «asmoa hona bizitzera etortzea zen, giro eta historia asko duen hiria baita». Lopezek gogoratzen duenez, Granada Iberiar penintsulako azken erresuma moriskoa izan zen, Errege Katolikoek 1492an konkistatu zuten arte, «beraz, historia handiko hiria da, zalantza barik».

Kontatu du Granadan ohikoena ezagunak garagardoak hartzea joatea dela, horiek tapak izeneko mokadutxoak ere ematen baitituzte. «Eskaintza gastronomiko handiko hiria da, eta jatetxe eta tabernetan inoiz ez zara jateaz nekatzen». Horrez gain, supermer-

katuetako produktuak hemengoak bezalakoak direla dio eta, han ere inflazioak eragina izan duen arren, bizitzeko hiri nahiko merkea dela aitortzen du. Gainera, hiri unibertsitarioa denez, beti dago parrandarako aukera: tabernak, musika jaialdiak, kontzertuak...

Pentsa dezakegunaren kontrara, neguan eta udagoienean nahiko eguraldi hotza egin ohi duela dio: «Udaberrian nahiko atsegina da, eta infernua udan. Udaldia ez da Granada bisitatzeko sasoirik gomendagarriena, bero handia egiten baitu. Gainera, jende gehiena leku epelagoetara joaten saiatzen da eta hiria hustu egiten da, unibertsitateko ikasle guztiak etxera itzultzen baitira».

Granada bisitatzekotan, bere ustez ezinbestekoak dira Alhambra, Abaicinera, Tristeen ibilbidera eta erdigunera joatea. «Halaber, uste dut ezinbestekoa dela egunen batean hiriari zehar galtzea eta Granadak duen eskaintza gastronomikoa probatzea». ◀



Unai Lopez Ansoleaga


Nongoa
Algorta.

Adina
26 urte.

Zertan dabil
Lanean.

Noiz heldu zinen?
2023ko otsailean.

Noiz arte bertan?
Auskalo.



Lurraldea
Espainiako Estatuak.

Azalera
505.944 km².

Hiriburua
Madril.

Biztanleria
47.615.034 (2022).

Hizkuntzak
Gaztelania da hizkuntza ofiziala; hala ere, Autonomia Estatuak beste hainbat hizkuntza ofizial gisa aitortzen ditu; hala nola euskara, katalana eta galegoa.

Moneta
Euroa.

Iholdi Beristain Martinez Abeslaria eta aktorea

«Ez dut barkatzen faltsukeria, jende gardena gustatzen zait»

TESTUA: IKER RINCON MORENO

ARGAZKIA: Iholdi Beristain Martinez ▶

Defini ezazu zeure burua berba bitan: Bridget Jones.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera? Lady Bird.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat? Eako hondartzan barretatik eskegita buruz behera.

Badaukazu ohitura txarren bat? Berandu altxatzea. Benetan, ahal dudan guztietan.

Eta aitor dezakezun bizio bat? Lokartzeko pelikulak edo telesailak jarri behar ditut.

Zein da zure ametsetako bat? Bilboko Arriaga Antzokian edo Donostiako Victoria Eugenia antzeztea.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera? Nire gitarra.

Gorrote duzun topikoa? Seguruenik genero konbentzioetan oinarritutako edozein.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik badago? Eskoziara, bereziki Edinburgo eta Glasgow.

Zer hutsegite ez zenuke sekula barkatzen? Faltsukeria, jende gardena gustatzen zait, naturala.

Eguna ala gaua? Zergatik? Gaua. Oso gautxoria naiz, askoz inspiratuago nago eta uste dut jendea askoz irekiago dagoela elkarrizketa zein bizipen ezberdinetara.

Non gura zenuke kontzertu bat eman? Zergatik? Kafe Antzokian. Hainbestetan joan naiz publiko bezala, izugarri gustatuko litzaidakeela rolez aldatzea.

Kontzertuak emateko lekurik onena? Lagunen sofan; konfiantzan, afaldu ondoren eta lasai-lasai. ◀



Laburrean. Portugaleten hazia, *Go!azen* telesailean ikusi ahal izan dugu hainbatetan Iholdi Beristain Martinez, Naia Badiolaren papera egiten. Telesailaren 4. denboraldiagaz batera, horretan oinarritutako antzerki musikalean ere parte hartu zuen eta baita beste saio batzuetan ere, besteak beste, Gabon Zahar gaueko saio berezian. Bago!az lehiaketako bigarren edizioan parte hartu zuen *coach* gonbidatu gisa, baita *Herri Txiki Kantari* Gabon Gaueko saio berezian eta *Go!azen* 2019 eta 2020 Gabon Zahar gaueko saio berezietan ere. 2021eko udagoienera *Daniel[a]* web serie digitalean parte hartu zuen, eta Erromako Digital Media Festen emakumezko taldeko aktorerik onenaren saria irabazi zuen. 2022tik, bere ahizpa Ibabe Beristainegaz batera, emanaldi musikatuak egiten ditu. Horregaz batera, gainera, «Etzigarriak» izeneko proiektuan gazteak eta euskararen etorkizunaz abesten dute, besteak beste.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Beldurraren etxea liburua

Ibaizabal argitaletxearen eskumenez, 8 urtetik gorako umeentzako liburu eder hau dugu zuretzako. Irakurri gura duzu? Bada, ez galdu aukera!

Zozketan parte hartu gura baduzu, azaroaren 19a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Nor naiz ni? liburua

Pamiela argitaletxearen eskumenez, 3 urtetik gorako umeentzako liburuxka eder hau dugu zuretzako. Galduko duzu lortzeko aukera? Bada, eman ezazu izena zozketan!

Zozketan parte hartu gura baduzu, azaroaren 19a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Su ta Gar kontzertuan

Abenduaren 2an, zapatuan, Eibarko talde ospetsuak kontzertu bat eskainiko digu Muxikebarrin, *Alarma* album berria aurkezteko. Sarrera bikoitzak ditugu zure zain!

Zozketan parte hartu gura baduzu, azaroaren 19a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



Kulturaldia

2023

PLENTZIA

AZAROAK 11
21:00
Asfillero plazan

EIRE

JMARTINA

LEMOIZ

AZAROAK 18
18:00
Armintzan

KALEJIRA
MITOLO
GIKOA

GORLIZ

AZAROAK 18
19:00
Ibarreta Plazan

POLE DANCE

OLAIA
INZIARTE

AZAROAK 19
11:30
Ibarreta Plazan

KALE ANIMAZIOA

AFRIKA
BIBANG

URDULIZ

AZAROAK 25
19:00
Antsonekoa Plazan

POLE DANCE

X SAKARA

AZAROAK 26
12:00
Antsonekoa Plazan

KALE ANIMAZIOA

SONAKAY

SOPELA

ABENDUAK 1
20:00
Kurtzio Kultur Etxean

BERTSO
ALDIA

NEREA IBARZABAL
ANE LABAKA
IMANOL URIA
SUSTRAI COLINA

ABENDUAK 2
20:00
Frontoian

XABI

ABURRUZAGA
eta **MEÑAKOZ**

BARRIKA

ABENDUAK 3
18:00
Udaletxeko Plazan

KANTU
KOLORE

ANTOLATZAILEA



MANCOMUNIDAD
URIBE KOSTA
MANKOMUNITATEA

LAGUNTZAILEAK



herria.gara
Sopela
SOPELAKO UDALA



barrika
UDALA



Urduliz
UDALA



Plentzia



Gorliz
UDALA



Urduliz
UDALA



Bizkaia
Foru Erkundeak
Aiputazioa Foruak

URIBE KOSTAN
EUSKARAZ
BLAI

